

GOIERRITARRA

HAMABOSTEKARIA

57. zenbakia

94ko azaroak 4



5 urte bete ditugu

Nagusia, 6
ORDIZIA

Nafarroa, 23
BEASAIN

Goen
FOTO
FOTOETNE

**Video
Monitoring
System**

• LABORATEGIAK BERTAN
BIDEOZ KONTROLATURIK



GOIERRITARRAK KULTUR ELKARTEKO BAZKIDE IZAN NAHI DUT NIK ERE

IZEN-ABIZENAK

HELBIDEA

HERRIA.....TELEFONOA.....

BANKETXEA.....BULEGOA

KONTU KORRONTE ZENB.

(1.500 PEZETAKO KUOTA/URTEKO)

BIDALI "GOIERRITARRAK K.E." 124. P.K. ORDIZIA

Eman eta zabal zazu

GOIERRITARRAK
KULTUR ELKARTEA da eskuetan izaten duzun GOIERRITARRA aldizkariaren editorea, jakingo duzunez. Kultur Elkartea hau bultzatzeko (eta bi-debatez debalde jasotzen duzun hamabosterokoa sendotzeko) kanpaina bati ekin diogu, Goierriko kultur ondarea denon artean bildu eta goratzeko asmoz.

Idea faltarik ez eta eginkizun ugari ditugu aurrez ikusirik: Goierriko herrien gehigarri bereziak, liburuak argitaratu

udalekin, kultur elkarte eta jendeekin bat eginik, ekintzak antolatu, e.a. Asmo honekin ados baldin bazatoz eta laguntzeko borondate hori baduzu, "Goierritarrak" K.E.-a indarberritzea nahiko bazenu, bete ezazu ondoko bazkide txartela eta bidali iezaguzu.

Oharrak: honek ez du esan nahi aldizkaria ordaindu beharra dagoenik; dena den, harpide ezezik bazkide egingo bazina, mesede haundia egingo zeniguke euskaltzale goierritar guztioi; bestalde, bazkideek eskubide batzuk izango dituzte: opariak, liburuak eta kamixetak jaso, ekintzetan partaide izan...

3 modulo

Behin: 9.000 pzta.

10 aldiz: 7.500 bakoitza.

Publizitate hau 3.700 txokotan sartzen da

2 modulo

Behin: 6.000 pzta.

10 aldiz: 5.000 bakoitza.

4 modulo

Behin: 12.000 pzta.

10 aldiz: 10.000 bakoitza.

GOIERRITARRA

☎ 88 96 12

GOIERRITARRA
HAMABOSTEKARIA
Argitaratzailea:
 "Goierritarrak" Kultur
 Elkartea.

Dorre-etxea, 1.
(Correos-gainean).
Tfnoa: 889612.
Faxa: 161463.
124 posta kutxa,
Ordizia.

Zuzendaria:
 Loinaz Agirre.
Erredakzioa:
 Jon Arano, Mikel Albisu.

Publizitatea:
 Argider Mujika.

Erredakzio Batzordea:
 Dionisio Amundarain, Jon
 Arano, Mikel Albisu, Jon Ima-
 nol Iturrioz, Patxi Zubizarreta,
 Ane Martin, Loinaz Agirre, Ne-
 kane Altuna eta Estitxu Imaz.

Zenbaki honetako kronista
eta kolaboratzaileak:

Joxe Begiristain, Aitor Calvillo,
 Rufino Iraola, Aloña Galarraga,
 Joseba Telleria, Mari Joxe Ma-
 dariaga, Josune Amondarain,
 Koldo Zubeldia, Jose Zufiaurre,
 Emeterio Sorazu, Pilare Mujika,
 Jon Aldanondo, Izaskun Salazar
 eta Martin Alustiza.

Azaleko argazkia: Foto Siste-
 ma.

**Fotokonposaketa eta maketa-
 zioa:** GOIERRITARRA.

Inprimaketa: ANTZA, S.A.
 (Industrialdea, 1-2. Lasarte-
 Oria)

Tirada: 3.700 ale. 3.300 harpi-
 dedun.

ISSN: 1132-0907

Lege Gordailua: SS-926/89

Frankeo kontzertatua: 37/76

GOIERRITARRAK ez du
 bere gain hartzen derrigorrez,
 aldizkarian adierazitako esa-
 nen eta iritzien erantzunkiz-
 unik.

▼ Hamabostaldian nabarmen ▼



Bi zaldibitar txirrinduz Galizian

Aitor Mujikak eta Joxi Irastorzak zerbait berezia egi-
 teko gogoaz zuten, eta 10en bat
 egun libre izanik, Galiziar
 txirrinduz bidaia egitea era-
 baki zuten. Aitor, afizionatu
 mailan dabilen txirrindularia
 da. Joxi berriz, ordu libreetan
 kirola egitea gustatzen zaion
 gaztea: txirrindua, mendia...

Lehen helburua Santiagora
 iristea zuten, eta bigarrena
 Galizia ahalik eta gehien eza-
 gutzea, beti ere txirrinduz.
 Santiagora joateko "Xacobeo
 bidea" aukeratu zuten, Orre-
 agatik Santiagora dihoana.
 Mendiko txirrinduari alfor-
 jak ipini, lo egiteko zakua
 eta beharrezko jantziak hartu
 eta irailaren 24an atera ziren
 Zaldibiatik txirrindu gainean.
 Txirrindu bakoitzak traste eta
 guzti 30 kilo pisatzen zituen.

Santiagora heldu bitartean,
 egunean probintzia bat zehar-
 katu zuten gutxi gora-behera,
 Nafarroa, Errioxa, Burgos,

Palentzia, Leon, Lugo eta
 Coruña. Eguneko batz beste,
 140 km inguru. Etaparik lu-
 zeena, Leonen egin zuten, 180
 km eta tartean bi mendate.
 Guztira 10 egunetan, 1.000
 km-tik gora.

Santiagora iritsi eta kosta-
 runtze jo zuten Galizia zehar-
 katuz. Hurrengo egunetan
 kostako bidea segituz, km as-
 ko egin zituzten, itsas ertzeko
 parajerik politenak ezagutuz;
 Noia, Finisterreko itsas ada-
 rra...

Joxi eta Aitorrek diotenez
 esperientzi oso ona izan da;
 bazter ugari ezagutu, jendea-
 rekin tratua bidean... Txirin-
 dua bazterrak ezagutzeko oso
 medio ona dela diote. Gustora
 egingo lukete berritro ere, era
 honetako bidaien bat, baina
 momentuz betiko martxan
 segi behar, hurrengo oporral-
 dira arte.

Koldo Zubeldia

Besteek esana

"LAZKAO-TXIKI eta
 biok ondo konpontzen ginen
 elkarrekin. Guk bakarrik be-
 giratzen genion aurrean ze-
 goen jendeari eta nondik hasi
 han pentsatzen genuen.
 (...)Lagun batek besteari
 esandakoak ez dira haizearen
 hegoetan jartzekoak. Gorde
 behar zirenak gordetzen ze-
 kien harek eta nik konfiantza
 osoa nuen harekin".

Manuel Lasartek,
"Egunkaria"n, 94-X-16.

NIKOLAS LEKUONA
 lagun "eta ezagun izan zute-
 nek ez dute ahaztu Ordiziako
 artista handia, Beatriz bere
 arrebaren hitzetan, tratuan
 bakarrik zoragarria zelako".
Alazne Iturriotzek
"Egunkaria"n, 94-x-15.

"BEASAINGO ODO-
 LEMAILE ELKARTEA-
 ren lema bete egin zen 70.
 urte zailetan ("Ez erlijio, ez
 arraza, ez politika, ez giza-
 mailarik"). San Migel klini-
 kan odol-emaile beasainda-
 rrek beren odola eman zuten
 bai segurtasun indarrekoen-
 tzat eta bai ETAKideentzat".
Jose Ignacio Sanchezek
"DV"n, 94-X-15.

**GOBERNADORE ZI-
 BIL** berri legorretarrak ez da-
 ki Gipuzkoako azken gober-
 nadore zibila izango ote den
 ala ez. Hala ere, ziurtatu egin
 du "momentu honetan ez dela
 torturatzen Guardia Zibilaren
 kuarteletan".

Juan Mari Jauregik,
"Egin"en, 94-X-16.

*Eusko Jaurlaritza-
 ko Kultura Sailak,
 Gipuzkoako Foru
 Aldundiak eta*

GOIERRIKO UDALEK diruz lagundutako aldizkaria



GOIERRITARRA dohain
 jaso nahi dut etxean

Izen deiturak

Helbidea.....

Herria

Ordiziako 124 Posta Kutxara bidali

Erljioarena

Ez da beharrezkoa denak nekazari izatea, edo arrantzale, edo abokatu... Baina gizarte zabal, ireki, plural eta normalean norbaitek izan behar du besteak ez diren hori. Beste horrenbeste esan daiteke erlijioaren gainean.

Fededunek fabore handia egiten diete fedegabeei. Geure baitan federik gabe bizi gintezke, baina batere sinismenik gabeko inguru batean bizitzea poesiarik edo bestelako arterik gabeko munduan bizitzea bezain gogor eta latz suertatuko litzaiguke. Ezinezko ere bai. Erljioak bere kontra egoteko bederik serbitu egiten du. Erljioaren zuzia gizonak beharrezkoa duela uste dut. Momentu honetan beste batzuek daramate zuzi hori beren eskuetan eta gu eroso bizi gara. Eskerrak eman beharrean gaude. Egunen batean itzaltzen bazaie, beraiek ainaxe asaldutako gara gu. Egun hartan, seguru, geu bihurtzen garela erlijiosoen.

Egun hartan, fedegabeek eragingo diote gogorren asmamenaren giltzari. Baina zaila da ezer hoberik asmatzea. Nekeza teorien hobea izan litekeen zerbait sortzea, nahiz eta praktikan hain gaizki konplitu. Ideologiaren krisia esaten dute gero! Kaka zaharra! Praktikak failatzen du hemen. Hori da, praxia, dotrina on guztien benetako Akilesean orpoa. Dena dela, zerbait asmatzekotan, nik, mundu honetarako gehiago balioko lukeen erlijioa aldarrikatuko nuke.

Rufino Iraola (Zaldibia)

Droga legalaren ostan, zer?

Orain komeriak! Hamabost egun aluzinaziotan bota (ideiaren menpe) eta errealtatea, egunerokoa, aurrez-aurre. Zer egin? Beste droga legalaren baten menpe jarri behar, nahitaez. Bakoitzak bere disimulo osoz bilatua. Zenbat gordeleku garena ezkutatzeko!

Ez da oraingoxea! Ia mundua mundu denekoa beharbada, salbuespenak salbuespen. Bakoitza bere jostailutxoarekin iragana entretenitzen, baina ezin, eta etengabe jostailua aldatzen, eta beti ere, gatazka-hodeiaren pean negarrez eta sufrimenduz blai-blai eginda.

Taldearen bedekazioa; bai negarrerako eta baita txalorako ere, baina inoiz ez begibistan duguna ikusteko; kia! Beti ihesian, halan da ze beti asperturik, gogaiturik, albokoa etsai dela sinesturik. Noiz arraio ohartu behar ote dugu geure begiez baino ezin dela ikusi eta hori norbere esku eta ez beste inorenean dagoela?

Sufrimendua ez da esistitzen, geure asmakizuna -guregan fija daitezen- baidarik ez delarik, denaren distorsioa bestela esanda. Plazerraren ordaina, hori da sufrimendua. Zerk kenduko ote digu? Zerk. Gizagaixoak eta gajoak, bai galantak! Droga!, droga! Izuen gordelekua.

Begibistan duguna ikusten ez dugun bitartean, guk egin behar ditugun negarrak... Baaai...

Pello Sarriegi (Barrika-Bizkaia)

Bai eta ez

Bai "Goierritarrak Kultur Elkarte"an bazkide izateari. Bai GOIERRITARRA aldizkariaren ta-juerari, oso ondo egiten ari zarete. Bai 13.000 inguru irakurleei. Ez nire bi eskutitz zenbaki berean ateratzeari. Niri horrek zera adierazten dit, alegia, ia 13.000 irakurleak lotan daudela. Eta horixe nire ezetza. Mesedez, es-na-tu. Aldizkari bat parte hartzeko, idazteko... da. Animo!

A, eta bai, baina letra haundi-haundiz, Patxi Iraolaren bertsoei. Osoak! Hala ere, beroni ere gauza beratxoa: es-na-tu. Horrelako bertsoak botatzen dituenak, zer ez ote du gordeta?! Bota bertsoa Patxi! Orain 20 urteko kontuak dira: goizeko 7ak, ni Ordiziako Mendizale Elkartera sartzeko, eta bertsoak. Ate ondoan geratu nintzen. Han joan nintzen Larraizko autobusean "burusoilaren" bertsoekin esnai baino esnaiago. Gero etxean aldarazi zidaten izena, "Ondobidean horrek 'Olei' izan behar dik. Oraindik gogoan ditut zenbait esaldi; hura-hau zirrara! Aupa Patxi!

Pello Sarriegi (Barrika-Bizkaia)

HORTZ KLINIKA

RUIZ VILLANDIEGO eta PARDO MINDAN Doktoreak



- * HORTZEN EDERKUNTZA
- * HORTZ EZARKETAK
- * MATRIL-HEZURREKO ARTIKULAZIOAREN TRATAMENDUAK
- * PROTESIS FUNTZIONALAK

Andra Mari, 7 - 1. A BEASAIN Tfnoa.: 88 07 83

MARI JOSE MERTZERIA

Kinkila-denda

☎ 887267

S. Inazio, 14 (Galeriak) BEASAIN

Linterneritza
Gasa
Berogailuak

BAKARRIK

☎ 88 07 65
908 671542

Igartza Oleta 10
BEASAIN

Intereseko Telefonoak

GOIERRIKO UDALETXEAK

ATAUN:	881011
ARAMA:	881170
BEASAIN:	885900
EZKIO-ITSASO:	729303
GAINTZA:	889564
GABIRIA:	880734
ITSASONDO:	881170
IDIAZABAL:	801064
LEGORRETA:	806225
LAZKAO:	886408
MUTILOA:	801006
OLABERRIA:	881434
ORMAIZTEGI:	882660
SEGURA:	801006
ZALDIBIA:	880357
ZEGAMA:	801115
ZERAIN:	801724

Errezeta



**Mari Karmen Mu-
jikak emana**
Mujika jatetxea
Idiazabal

GANBA ETA PERRETXIKU ENTSALADA

Osagaiak: ganbak, lastotako perretxikuak, txaka, york urdaiazpikoa, maionesa eta letxuga.

Zartagi batean ganbak baratzuri txikituarekin goritu. Beste zartagi batean, oliba olio eta tipula txiki-txiki eginda jarri, eta goritu baino zertxobait lehenago, perretxikuak eta ardo goxoa bota; 7 minutuz utzi.

Urdaiazpiko egosia txikitu Julianan. Ganba eta perretxiku batzuk alde batera utzi, bukaeran platera adornatzeko. Entsalda-ontzian perretxikuak, ganbak eta york urdaiazpikoa maionesarekin nahastu. Entsalada zerbitzatu behar dugun plateran letxuga jarri, eta sobratu zaigun ganba eta perretxikuen salda bota. Jarraian, entsalada-ontzian geneukan nahasketa eta txaka txikitua bota. Bukatzeko, perretxiku eta ganbekin apaindu.

Bota bertsoa



Xabier Narbarte
**Gaia: GOIERRI-
TARRAK 5 urte**
Doinua: Lizasok Txapelketan erabilitakoa

Bost urte ditu bere bizitzak
egun askotako guda,
axolik eza bihurtu bait zen
noizbait batzuen ardura,
amets gozoen, amets gaiztoen
benetazko abentura,
beti emaile, beti premian
sarri eskale modura,
zailtasunean jaio izan zen
goierritarron mundura.

Esan bezala igaro ditu
hainbat neke eta ezin,
bere albiste, bere kontu zahar
eta atal zabalekin,
aurrerantzean geure etxean
jaso nahi dugu berdin,
goierritarrok GOIERRITARRA
eskatzen dugun bezain fin,
GOIERRITARRAK goierritarrok
behar gaitu berarekin.

ARDOTEGIAK

— B —
ELOSEGI
— D —
E
— G —
ARACO
— S —

Poligonoa 201 Tfnoak.: (943) 88 09 79-88 80 89
Fax: (943) 88 80 89 **OLABERRIA** (Gipuzkoa)

Ctra. de La Puebla, s/n Tfnoa.: (941) 10 02 09
LAGUARDIA (Rioja Alavesa)



“Eguneroko ogia,
ogi bereziak eta
pastel ezin hobeak”



Kale nagusia, 35 Santa Maria, 19
☎ 88 77 58 ☎ 16 00 44
BEASAIN **ORDIZIA**

Debaldeko iragarkiak

Lana

□ Mekanografia lanak egi-
ten dira ordenadorez Ordizian. 882843 telefonoa, Eli.

Salerosketak

□ GOIERRITARRAren kamixetak salgai gure egoitzan (Ordiziako Dorretxean, "Correos" eta Nekazari Etxearen gainean). Txuri-beltzak, XL, L eta M tailak aukeran, 1.000 pztan. Aldizkariaren ale atzertuak ere oparitzen ditugu.

□ GOIERRITARRAren propaganda, ez garestiena, bai onena! Kontuak atera eta zuretzako egokiena aukera. Merke merke sartuko zara 3.700 txokotan (13.000 irakurletik gora). Dei 889612ra (zure inprentalanak ere egingo ditugu, behin eta ondo).

□ Bi akumuladore estatiko 2.600 w-koak salgai dauzkagu. Tfnoa.: 889651

Etxebizitzak

□ Pisua salgai Ordiziako Altamira auzoan: sukaldea, sala, 4 gela, e.a. Interesatuok dei 881827ra edota 881018ra.

Egutegiak

ANTZERKIA

✓ Beasain:

Azaroak 17, "Pinotxo" txotxongiloa Antzezki-zuan taldearen eskutik, Udal Liburutegian 18.00etan.

✓ Ordizia:

Azaroak 11, Bederen 1 taldearen 'El alquiler' lanaren estreinua, 22.15etan.

MUSIKA

✓ Ataun:

Azaroak 11: ikus Ataungo jaietako egitaraua.



✓ Beasain:

Azaroak 4, Brendan Croker kitarrajolearen kontzertua La Sallen,

22.30etan.

Azaroak 5, "Composite" eta "No acuaties" herriko taldeen rock kontzertua Ezkierdi pilotalekuan, 23.00etan.

ZINEA

✓ Beasain:

Azaroak 5, "Asterix Galiarra" Murumendi ikastetxean, 16.30etan.

Azaroak 6, "Albaniako konkista" La Sallen, 16.30etan.

Azaroak 13, "Polizia Akademia Eroa I" La Sallen, 16.30etan.

Azaroak 12, "Astakiloen abenturak eta desbenturak" Murumendi ikastetxean, 16.30etan.

✓ Ordizia:

(Herri Antzokia)

Ostirala 4: "Cuatro bodas y un funeral", 10,15etan.

Larunbata 5: "Cuatro bodas y un funeral". 7,30 eta 10,15etan.

Igandea 6: "Beethoven 2, la familia crece", 4,45etan. "Cuatro bodas y

un funeral", 7,30 eta 10,15etan.

Astelehena 7: "Cuatro bodas y un funeral", 7,30etan.

BERTSOAK

✓ Ataun:

Azaroak 12: ikus Ataungo jaietako egitaraua.



✓ Ordizia:

Azaroak 12: Bertsoafaria Argi-Berri elkar-
tean, Aitor Sarriegi, Jon Aiestaran, Ekaitz Goikoe-
txea, Alaitz Sarasola, Xa-
bier Nabarte eta Jose Ra-
mon Elortzarekin.



*Olaberriko
Udala*

IRAGARKIA

Ohar honen bidez adierazten da, lurreko eskoletan etxebizitza bat libre geratzen dela.

Etxebizitza honetan bizitzeko interesatuta zaudetenok, dago-kizuen inprimikia Olaberriko Udaletxean bete beharko duzue datorren azaroaren hamalaua baino lehen.

Argibide gehiago Olaberriko Udaletxean emango zaizue.

ALKATEA



**GENERALI
Aseguroak**

IÑAKI ARIN BAZTARRIKA

Oriako Pasealekua, 20

Tfnoa: 88 87 02

BEASAIN

**MUNDUATE
Erlojutegia**

TISSOT

Swiss Quality Time

BANATZAILE OFIZIALA

*100 urte baino gehiago
Goierriren zerbitzuan*

Nagusia, 1
Tfnoa: 88 12 72

ORDIZIA



ERAKUSKETAK

✓ Beasain:

Urriak 29tik azaroaren 18ra, Santa Klarako (Kuba) Arte eta Plastikako Eskolaren pinturaren erakusketa.

Urriak 4tik 13ra, Xabier de Zeroren erakusketa Kultur Etxeko Erakusketa-Aretoan.

Azaroak 14, "Egizu kinu naturala" kanpainaren erakusketa ibiltaria San Martin plazan.

✓ Idiazabal:

Azaroak 3-4-5, gazteluei eta monumentuei buruzko erakusketa.

MENDI IRTEERAK:

Beasaingo mendizaleak:

Azaroak 6, "Finalista eguna".

Azaroak 13, Haitxuri (1.551 m.) mendi irteera.

Idiazabalgo mendizaleak:

Azaroak 6, Xabierko gaztelura eta Leireko monastegira ibilaldia.

Ordiziako mendizaleak:

Azaroak 6, Lizarraga-Urbasara ibilaldia.

Azaroak 13, Urdelar-Altsasu ibilaldia.

Pausogaizto Goierriko mendizaleak:

Azaroak 5, Ondarreko Zuloa, Aralarren.

Zaldibiko mendiko zinema zikloa: emanaldiak Kultura Etxean izango dira, gaueko 8etan, honako ordena honen arabera:

Azaroaren 8an, astearte, "Ur zuriak" eta "Aztarna bila".

Azaroaren 10ean, osteguna, "Erre Bida horiek" eta "Gailurra zelaiaren gainetik".

Azaroaren 14ean, astelehen, "Eraldoi zuria" eta "Haizearen menpe".

Azaroaren 15ean, astearte, "Zeruaren sustriak" eta "Haize-mendia".

Azaroaren 22an, astearte, "Azken erroka".

Azaroaren 24ean, osteguna, "Izotz eta argi egunak".

GOARDIAZKO BOTIKAK:

Azaroak 4: Jauregi; **5-6:** Atorrasagasti; **7:** Larnaga; **8:** Cuesta; **9:** Arriola; **10:** Urbizu; **11:** Atorrasagasti; **12-13:** Urbizu; **14:** Azpilikueta; **15:** Arriola; **16:** Larnaga; **17:** Cuesta.



Ehiza, onddoak eta kiwiak nobedade

Era askotako ehiza, onddoak, kiwiak eta pina izan ziren nobedade nagusi, asteazkeneko azokan. Sal-tzaileen arabera, birigarro asko, usoak bastante eta eper-rak dexente izan ziren. Biri-garroa 75-100 pztan saldu zen; usoa 800-900ean eta eper-ra 850-1.000ean.

Ehun kilotik gora onddo (nafarra eta galiziarra gehiena) bildu ziren; 2.000-3.000 pztan salduak. Gibelurdinak, (20 kilotik gora) 2.000-2.500 pztan; xixa-hori gutxi batzuk, 2.500ean; gamuza 800-1.000ean; eta nikalao eta lanperna 1.000 pztan.

Bertako fruituetan Her-naniko kiwia izan zen asteazkeneko nobedade. Kiloa 500 pztan saldu zen. Azke-nengo baxakanak eta pikua-iz izan ziren; 550 pztan eta 150-200 pztan. Txorisaga-rrak 100-200ean; errezilak 150-275ean; udarea 150ean eta gaztainak 200-400 pztan.

Bertako barazkiei dago-kienean, tomate gutxi azaldu ziren. 200ean saldu ziren. Lekak 350-400ean; piper berdea 150- 250ean, ozpi-

netako piperrak 200-300; babarrun zuria eta gorria 700-800 pztan; eta babarrun beltza 800-1.100ean.

Kanpoko produktuetan, muxikak, mahats txuri txikia eta beltza datorren urtera arte desagertu dira. Meloiak ber-ritz, azkenak izan ziren asteazkenean; 100-150ean saldu ziren. Azaldu berriz, pina eta pomeloa azaldu zi-ren joan zen asteazkeneko azokan. Pina 290ean eta po-meloa 225ean. Granadak jai-tsi egin ziren, 200-225era. Laranjak ere jaitsi egin ziren; 100-130 pztara. Platanoak 250-300ean; mahats moska-tel italiarra 250-275ean; le-kak, igo egin ziren, 275-350 pztan; azalora 150-200ean; klementina 200-250 pztan; tomatea 200-250ean; piper berdea 190; eta kiwi fran-tziarra 280ean.

Arrainetan, prezioak igo egin dira zertxobait. Legatza 2.020 pztan; mediana 1.890ean; antxoak 730ean; sardinak 520ean; txitxarroak 820ean; txipiroiak 1.150-1.250 pztan; bakai-laua 1.540ean.

Ana Irastorza



SAN ANDRESKO HEGAZTI TXOKOA

ORDUTEGIA:

LARUNBATA, 4etatik 6etara

IGANDEA, 11etatik 1etara

☎ 80 12 35 - 80 14 10

SEGURA

OIANGU

TABERNA

Euskalerria z/g

Tfona: 88 30 03

Ordizia

FANDANGO (ORRIPEKO) ETA ARIN-ARIN TXISTU MUSIKA LEHIAKETA antolatu du Segurako Udalak, 10. aldiz. Konposizioan, ohizko txistu familiko tresnak erabili beharko dira, hau da: 2 txistu, Silbotea, Danbolina eta danborra "adlibitum". Konposatzaile bakoitzak, Orripekoak, Ariñ-Ariñak edo bietatik aurkez ditzake. Dantzarako egokitasuna, doinuaren aberastasuna eta edertasuna, armonizapena, doinuaren esaldiak 8 edo 16 konpasetakoak izatea hartuko dira kontuan. Ez da neurri herrikoirik onartuko. Lanak martxoaren 1erako bidali beharko dira Segurako Udaletxera. Irabazle aterako diren lanak ekaian Seguran izango den Euskadiko Dantza Txapelketan joko dira.

LEGORRETAN AUTUEN DOHANEKO AZTERKETA egingo du Legorretako Udalak Cadem-Eusko Jaurilaritzarekin bat eginda. Azaroaren 14tik 18ra, 10etatik 13.00etara, eta 15.30etatik 18.30etara,

Bidarte auzoa, 5-behean izango da aukera. Behin azterketa amaitu eta azterketan azaldutako akatsak konpontzera Cadem-ek daukan edozein tailerretara joanez gero, % 30eko behe-rapena izango da.

SUKALDARITZA, GALTZERDI, PULTSERA ETA PANDERO IKASTAROAK antolatu ditu Goiherriko Euskal Eskola Kultur Elkartek azarorako, "euskaraz bizi, bizi-bizi euskaraz" helburuz. Sukaldaritza ikastaroan mondeju eta odolkiak egiten irakatsiko da, azaroaren 10, 11, 17, 18, 24 eta 25ean. Galtzerdi ikastaroa batez ere puntua egiten dakitenentzat, 7, 14, 21 eta 28an. Pultseren ikastaroa larunbat arratsaldetan izango da, 5, 12, 19 eta 26an. Panderoarena, 8, 15, 22 eta 29an, arin-arina, fandangoa eta kalejira ikasteko aukera izango da. Ikastaroak laskaotar, goierritar nahiz beste nonahikoetzako irekita daude. Interesatuok dei 16 02 82 telefonora.



III. KOMIKI LEHIAKETA antolatu du Bergarako Jardun Elkartek. O.H.Oko 6. mailatik gorako edozeinek har dezake parte. Lan guztiak argitaragabeak eta euskaraz idatzia izan behar dute. Euskararen aberastasun eta zuzentasuna, argumentua eta marrazkien kalitatea eta originaltasuna baloratuko da. 3 talde bereiztuko dira: 1. go. taldea, OHoko 6., 7. eta 8. mailakoak (gutxienez 2 orrialde luzera izan beharko dute lanek); 2. taldea 14-18 urte bitartekoa (gutxienez 3 orrialde); eta 3. taldea 18 urtetik gorakoa (gutxienez 4 orrialde). Lanak Bergarako Masterreka 13, behera bidali beharko dira abenduaren 12a baino lehenago.

GOIERRIKO ERRETRATU ZAHARREN ESKE GOIERRITARRA

Goierriko edozein herri-tako erretratu zaharrak behar ditu GOIERRITARRAk, argitara emateko. Argazkia non eta noiz aterata dagoen, bertan agertzen direnak nortzuk diren... xehetasun guztiakin, ahal bada. Argazkiak hutsik egin gabe itzuliko dira, eta horretarako bidaltzailearen izen-abizenak, helbidea eta telefonoa argi eta garbi azaltzea eskertuko genuke. Mila esker! GOIERRITARRAren zuzenbidea: 124 p.k. Ordizia. Dorre-Etxean gaude, "Correos" eta Nekazal Ganbararen gainean. Tfnoa: 889612.



LEHEN



ORAIN

Gorputza moldea daiteke

Liposukzioa
Bular handitzea
Bular gutxitzea
Sabelaren jaistea
Begietako poltsak kentzea

Erabateko depilazioa
Aurpegiko tratamenduak
Aknea
Azaleko orbainak
Automakilaio ikastaroak

Ana Kristina Olano Estetika Zentrua
Senpere Merkatal Zentrua, 88 15 50 Beasain
Ramon Aginaga Doktorea, Zirujia Estetika Elkarteko partaidea

12 urteko ume kozkorrak

Orain arte lan gutxi eta, aurki, aztoramendu gehiago. Herri Eskola utzi eta Goierriara, Institutura, Lizeora edo auskalo nora joan beharko dutela. Erreforma omen da.

Hasi dira guraso atsekabetuak, baina nola gure ume gajoa autobusean Beasaina, Ordiziara? Bera bakarrik, ezer gertatuta ere!

Kontsolatu ditu, beti zerbait botatzeko dagoen adiskide eskergabeak. Merezia; umea mimoz beteta, zer us-te duzue izango dela bihar-etzi? Gu hamar urterekin ere hasi ginen.

Arrazoi faltarik ez, irudi nerri.

Ordea, ezin ezkutatu beldur naizela neu ere. Ihauteritan kale hotza bero jarri dute, zapatuero hor dituzte partiduak, perretxiku erakusketa xelebre hura, atzo urrutiko amona hari elkarritzeta bat egitera joan ziren, eskean kantuz datoz; Guraso Elkartean hika-mikak daude, baina saltsa pixka bat ere behar da eta... igandeko bideo saioa, hau, beste hura.

Goierriko herriei beste odol pixar bat xurgatu behar diete Beasainek, Ordiziak; izango ote da nahikoa, eskatzea Lizeo- Institutu-Goierriei, egin dezatela herriei begira eskolek egiten dutena? Hamabi urteko ume kozkorren onerako.

 Antonio Berasategi



Asier Iranzuegi
19 urte, beasaindarra
garraiolaria

Ez, ez dut egiten. Denbora gutxi daukadalak eta alperra naizelako. Gainera musika talde batean bateria jotzen dut eta han nahiko izerdi botatzen dut. Kirola egitekotan bizikleta aukeratuko nuke.



Iñaki Jauregi
28 urte, arriarandarra
langilea

Oso gutxi. Astirik ez dut hartzen kirola egiteko. Asteazkenean lana eta asteburuan lo egiten bait dut. Gustatu bai, txirrin-duz ibiltzea batez ere. Garai batean gelditu ere egin gabe ibiltzen nintzen.



Estibaliz Berasategi
22 urte, zegamarra
haur zaintzailea

Gutxi egiten dut. Mendira joatea gustoko dut, han paseatu... baina denbora gutxi izaten dut horretarako. Txikitan bai, kirol gehiago egiten nuen, futboleko ibiltzen nintzen.

▼ ▼ **A ze flaxa!** ▼ ▼

Unibertsitatea Goierriin

Gero eta unibertsitari gehiago dela Aretxabaletan eta bertako aldizkaria den "Aretxagazeta"k erreportai bat eskeini dio gai horri. Azal eta barruetan, Lazkaoko Maizpide euskaltegiko argazkiak ez dituzte jartzen, ba, unibertsitate eredu gisa?

ASEGURU / AGENTZIA

MUNDUATE

☎ 888620, Fax: 889118
Hirigoien, 12 LAZKAO

**JOSUNE
ARRAINDEGIA**

Altzanipe
ATAUN (S Martin) ☎ 18 03 67

**SUKIA
HARATEGIA**

Festa onak pasa herritarrok!

San Martin
ATAUN ☎ 18 03 45



Jose Zufiaurre Goia
(Beasaindar
etnografoa)

Oso epe laburrean gure eskuetara heldu den albiste baten aitzakiz (Segurako pikota aurkitu da) eta GOIERRITARRAren kolaborazio-eskea kontutan harturik, urkabe, urkamendi edo pikotarena izango da jorratuko dugun gaia.

Bi izan dira Gipuzkoan, egunkari eta liburuetan orain arte ezagunarazi direnak. Alegia auzoan Gabiriko aldean, eta Ezkioko Santa Lutzi auzoan daudenak alegia. Orain dela lau urte, Gipuzkoan zehar herriak aspaldi jarritako lau eraikuntza berezietaz ikerlan bat burutu genuen. Kruzero edo bidegurutz, gurutz-bide edo kalbariotoako gurutze berezi, urkabe edo pikota eta santutxoetatik hain zuzen ere. Ba dira erlijiosotasun herrikoiak eraikitako 103 adierazgarri. Gehienak 200 urte baino gehiago dituztenak gainera. Datorren urtean argitaratuko ote digute. Ba ikerlan horretan, lehen aipatutako bi urkabeetaz gainera, Segurako hau eta beste bat ere azaltzen dira, Joseba Telleriak herritarrek orain arte zekitena hain garbi azaltzen digun bezalaxe.

Irakurri bezain laister joan ginen "Liliku"ra. Hura poza harri-borobil puska eta harmailako zatia ikusi genuenean. Urkabe honek gainera, besteak ez duten ingurune berezia du. Betidanik ezagutu den zortzi bat metro luze duen harlanduz egindako horma okerra. Orain azaldu diren bi zati hauek kontuan harturik, Joseba Telleriak esaten duen bezala lehen aipatutako bi haien antzekoa izango zela esan daiteke, baina horretarako ikerlan sakonagoa egin beharko da. Berez, haien lodiera 58 eta 60 zentimetrokoa da, eta honena 42koa. Kamioi baten bultzadaz edo botata, bost bat

Urkabe edo pikotak

urtetan gordeta eduki ondoren, oraintxe lau urte berreraiki zuten Santa Lutzikoa. Bai ingurune txukuna jarri ere gainera. Lan haien zuzendaritza, Aranzadi Zientzi Elkarteak, Arkeologia Historikoko lan-saileko Ana Etxebarría eta Yazmina



Segurako "Liliku" izeneko herri-lurra eta aipatutako harlanduzko horma. Orain azaldu diren zutarriaren aztarnak ezkerreko muturrean azaldu dira.

Grandio andereak burutu zuten. Halakoren batzuk beharko dira hemen ere.

Baina urkabe edo pikota hauetaz orokortasun batzuk aipa ditzagun. Gaizkileak lotuta jarri eta zigorkadak ezartzeko lekuak ziren, eta XIII. etik XIX. menderarte Europa osoan zabaldu ziren, leku batzutan bestetan baino azkarrago izkutatu zirelarik. Espainiako lurralde batzutan "rollo" deitzen zieten eta die oraindik. Gehienetan herriko sarreran, bide ertzean, jende ugari ibiltzen zen tokietan jarri ohi zituzten. Bere goialdean, gaizkileak zintzilikatzeko zirgilo edo kakoak izaten zituzten. Ez ziren beti heriotzarako erabiltzen. Lapur eta gaizkileak bere ospe-txarrerako denen aurrean ordu batzutan lotuta edu-

kitzeko ere bai.

Alegia auzokoak gainera beste berezitasun bat badu. Guk txikitzen, euskaldunen artean erdaraz hitz egiten genuenean, gure gurasoak, osaba-izebak edo aiton-amonak "belarri moztak" esan ohi ziguten; eta gaiztoak ginelako belarriak moztuko zigutela. Askoz geroago konturatu ginen zer esan nahi ziguten. Alegiko "rolloa" azken harmailatik 133 zentimetro goraka, aurpegia sartzeko lain den hutsunea dauka. Eta heriotz-zigorra ezartzeko adina ez, baina betirako gaizkilearen ezaugarria ezartzeko adinako errua aurkitzen zieten, aurpegia hutsune horretan sartu eta kanpoan gelditzen ziren belarri-puntak moztzen omen zieten.

Beste batzutan, lapurrei eskua edo besoa moztu eta urkabeen zintzilikatu ohi omen zituzten. Herri batzutan, ez zen horrelako zutarri izaten, baizik eta zirgiloak jauntxoaren jauregiko kanpoko hormaren batean jarrita egoten ziren. Bai elizaren kanpoko horman ere.

Azkenik, jauntxokerien adierazgarriak zirelako, Kadizko Korteak 1811. urtean beren indar-legeak bertan behera utzi zituenetik, gehienak desagertzen joan ziren. Hala ere, bakar batzuk gaur arte iraun dute, baina oso gutxi, ia gure herri guztietako leku-izenen zerrendetan "urkabe", "urkamendi", "urkamuño", "urkabide", "urkasoro", "urkainalde", etabar azaltzen diren adierazgarritzat. Dirudienek, osorik irauten ba dute zutarritzko urkabeak, aspalditik erabili gabe zirelako, eta bere gainean burnizko gurutzea jarrita kristautuak zeuzkatelako, gurutz bezala gelditu ziren.

**Kadizko
Gorteen
erabakiaren
ondoren
desagertzen
joan ziren**

Mor Ddiop senegaldarra Ordizian dendari

Urriaren 5ean ireki zuen Mor Ddiopek "Darau Mousty" denda (bere jaioterriaren izena). Bere anaiak laguntzen diola, Ordiziako P21 merkatal zentruko behe soilaruan aurkitzen da hauen negoziotxo.

Saltzaile lan hau ordean ez da berria beraientzat. Aurrez azokaz-azoka ibiltzen ziren Afrika aldeko produktuak saltzen. "Denda bat jartzea pentsatu genuen froga bezala, ea funtzionatzen zuen ikusteko. Azoketan krisia dela eta, gutxiago saltzen zela ikusi genuen. Dendan, oraingoz



behintzat, jendeak ondo erantzun du, nahiz eta askok ez dakien denda hau jarri dugunik".

Oparigaiak, poltsak, bisuteria,

hippy-en arropak, aterkiak eta abar luze bat saltzen dituzte. Guztiak ere, Marokko eta Afrikako beste hainbat lekutatik ekarriak.

Han hemenka, saltzearen, ikasiak dituzte euskarazko zenbait esamolde. Asko gustatzen omen zaie gure hizkuntza. Horrek animaturik, euskara ikasten ari dira Ordiziako euskaltegi batean. "Kalean erraza egiten zaigu euskaraz zerbait egitea edo ikastea, baina klaseetan oso zaila da guretzat".

 Mikel Albisu eta Loinaz Agirre

Iztueta zaldibitarren bertsoen eskuizkribu bat azaldu da

Zaldibitarrok urtean behin ospatzen ditugu herriko zaldariaren jaiak, Santa Fe jaiak alegia, urriaren 6an. Baina, zaldibitarrok badegu motiburik asko urtean zehar ospakizunik egiteko, baldin gure aurrekoen artean kultur serbitzu ederrik emandako pertsonaiak "biziberritu eta bir-maitatuko" bagenituzke.

Hoietakoa bat dugu gure Juan Ignazio Iztueta. Hain zuzen, datorren urtean 1995, bere heriotzaren 150. urtealdia dugu. Arrazoï gehiago zaldibitarrok urtean zehar kultur-ospakizunez herritar eta kanpotarrak festarazteko.

*Ignazio Iztueta bertsoak
Euskarazko bertsoak*

(1)
Gipuzkoan hiru urte aldi
Zuzen hiru denborak,
Eziz gogoratu ezin ziren
Gure auzoak Gernikako:
Beldur nuen hiru urte aldi
Beldur nuen gogoratu,
Hiru gogoratu bertsoak ziren
Gipuzkoan gogoratu,
Beldur nuen hiru gogoratu
Zuzen hiru denborak

(2)
Antsoan eta Antso
Antsoan eta Antso
Antsoan eta Antso
Antsoan eta Antso
Antsoan eta Antso
Antsoan eta Antso
Antsoan eta Antso
Antsoan eta Antso
Antsoan eta Antso
Antsoan eta Antso

© On Juan Ignazio Iztueta-aren irakurketa.

Eta oraingoa bere eskuizkribu baten bertso zerrenda aurkitu dugu, inoiz ere argitaratu gabea. "Berria" izateaz gainera, bere bertsolaritzako

sena bikain erakusten du hogei bertsoetan. Irakurleak goza dezala patxaran eta nahi duen doinuaren, kantua doinura erakarriz, Iztuetak ere ziur asko hauek idaztean, bere oinak eta gorputza "dantzaz ikutuak" izango bait zituen.

Bertsoen gaia, gero berak idatzitako libururik ospetsuenetakoa izango zenaren izenburu berdina darama: "Gipuzcuatarren Condaira, Erromatarren Denboran".

Emeterio Sorazu (Zaldibiako apaiza)



Tfona: 885500 ORDIZIA

Erakusketa
Sukaldeko tresnak




Mariaratz, 4
Tfona: 88 86 84

BEASAIN



Nahi duzun argazkia inprimatuko dizugu zure kamixetan
Domingo Unanue Plaza
88 93 25 ORDIZIA

Ba al dakizu...?



IÑAKI LARRAÑAGA soziologo lazkaotarrak Donostiako "Iru-txulo" aldizkariari adierazi berri dienez hauteskunde aurretik, "sondeoak, teknika eta metodologia aldetik behar bezala erabiltzen ez direlako bihurtu dira azken batean alderdi politikoen marketing tresna bat". Bestalde, Itsasondoko apaiz ere badenak, pobrezia-aren forma eta indikadore berriak sortzen ari direla dio. "Lehen jantziak, telebista, berogailua, frigorifikoa e.a. begiratzen ziren pobrezia neurtzeko. Gaur egun langabeziak ekartzen dituen egoera berriak sortzen dira: janari urritasuna, berogailuak piztu ezin eta hotzak egon, zorpean sartzen da jendea aldameneko dendan, banketxean ahal dutenean, ezin dentistarengana joan..."

SAMARTIN EGUNA datorren astean ospatzen da, 11an hain zuzen. Garai batean urte guztian zehar gizendutako txerria hiltzeko eguna zen, tradizio handikoa gainera. Badakizu zerriak dena duela probetxagarri, belarrietatik hasi eta isatseraino; baita odolkiak ordainetan izaten direla. Dena den, badirudi txerri-hilketa galduz dihoala, batipat txerria hiltegiak sakrifikatu behar denez geroztik. Oroitzapen ederrak dakartzigun argazki hau ez da gehiegi errepikatuko egunotan, beraz.

CAF-EK 70.000 MILOI pezetako negozioa izan du 6 urtetan Renferekin. Kontratu gehienak ibilbide laburreko eta abiadura handiko trenbideak eta beren osagarriak egiteko izan dira. Renfek 89. urtetik materialak erosteko egindako inbertsio guztietatik %28 CAFek jaso ditu osorik edo zatika. Orain dela gutxi sinatutako kontratu baten arabera, ibilbide laburrerako 47 tren egingo ditu enpresa harentzat enpresa goierritarrak eta 25.000 miloi jasoko ditu. Bestalde Bilboko Metro-rako egingo dituen 24 trenetatik lehenbizikoa aurkeztu berri du. "Goi mailakotzat" jo dute agintariek aurkeztutakoa, izan ere Estaduko aire egokitua duen lehen metroko trena baita. Guztira 20.000 miloiko aurrekontuko lanak egingo ditu Metrorako.

BEASAINGO "ZULO" TABERNAKO nagusiak diren Mainer eta Mariano Maiza ordiziarrek 850 sinadura entregatu diote Udalari, beren tabernaren itxiera dela eta protestan. Taberna honek hasiera-hasieratik izan ditu arazoak bizilagun batekin, eta baita Udalarekin ere. Soinua ozenegia zela eta, inongo abisurik gabe Udalak taberna ixteko agindua eman omen zuen, arazoa konponduko duen proiektua

aurkeztu bitartean. Nagusiek "El Mundo"ko Gurutze Aldaberi adierazi ziotenez, "29 urte ditut, 2 milioi pezeta inbertitu ditut negozio honetan, 125.000 pezetako alokairua ordaintzen dut, zorrez blai nago eta oraindik ere justifikatu gabeko arrazoi bategatik, hondoratu nahi gaituen pertsona batengatik, dena uztea nahi dute".

"ABC" EGUNKARIAK DIONEZ, "ETAren pistoleroen sorleku" den Goierri buruzko erreportaietan, "Proetarrek hauteslekuak zaintzen dituzte", "ia hautesle guztiek boto-papera prestatuta daramate", "alderdi nazionalistek baino ez dituzte apoderatuak jartzen", "kabinarik ez da izaten". No comment.

ARANTXA ASEGINOLAZa beasaindar Kultura Batzordeburuak berauek daramaten politika agian birplanteatu egin beharko litzatekeela uste du. Urteko 50 miloiko aurrekontua dute eta Udazken Kulturarak 5 miloikoa du hortik. Baina bere hitzetan, "kultur eskeintza honek ez du beharko lukeen erantzunik jasotzen, garbi geratzen den bezala antolatzen diren kategorizko ekintza askotan".





BEASAINGO ODOLE-MAILEEN ordezkartzaren 25. urtebetetzea ospatu zen urriaren 22an. Goierri eta Urola garaiko 67 odolemaile intsinia batekin omenduak izan ziren, 25 odol-emanaldi egiteagatik. Hauen gehiengoa Beasaingoa zen: 27; 14na Legazpi eta Zumarraga-Urretxu-koak; 2 Segurakoak; Ordiziakoak 3, Lazkaokoak 2, Itsasondokoak 3 eta Legorreta eta Idiazabalgo bana. Herri ezberdinetako odol-emaileek momentu gogoangarria pasa zuten elkarrekin.

ko Belak taldea, M. Jose Telleria irakaslearekin; eta Ataungo Joxemiel Barandiaran Eskolako Eta Eterre taldea, M. Karmen Iztuetaren ardurapean. Sari bezala, hiru taldeok beste bost taldeekin batera, Ipar Euskal Herrian asteburua pasatu zuten.

AITOR LETAMENDIA TRIKITILARI beasaindarra munduko txapeldun izan zen Italiako munduko txapelketan. Arkaitz Lasa andoaindar pandero-jolea izan zuen la-

GOIERRIKO IKASTETXE SARITUAK

izan dira Abelino Barriola deklamazio lehiaketan 93-94 ikasturtean. Idiazabalgo Aita Iparragirre ikastetxeko Axeri taldea, Joxe Goikoetxearen ardurapean; Zegamako Herri Eskola-

gun. Ingelesak, kroatak, poloniarrek, italiarrak... musika maila altua egonagatik, "fandango tradizionala" eta "Akordeoiaren printzesa" obrekin lehen saria lortu zuten. Euskadiko Trikiti Pieza Berrien lehiaketarako presatzen ari dira orain.

"KULTURAREKIN BUKATZEKO" zenbait berri: omenaldi beroa eskeini zioten Lazkaon Lazkao Txiki zenari; Areria zinema bete egin zen eta bertsolari ospetsuaren bertsoak entzuteko aukera ere izan zen. Ordiziako Oroith Abesbatza izan da euskal ordezkaria Tolosako Nazioarteko 26. Abesbatza Lehiaketan. Rufino Iraolak irabazi du aurtengo Orixe Bertsopaper Lehiaketa.

IÑAKI HIDALGO Kultur Etxeko arduradunak-eta datorren hila-beterako lujozko Kultur Programa bat Ordiziaratu dute. Azaroak 11n "Bederen 1"en "El Alquiler"en estrenua tartean.

Eusko Legebiltzarrerako hauteskundeak emaitzak goierrin

Udalerrria	Zentsoa	Abst.	HB	EAJ	EA	PSOE	PP	IU	UA
ALTZAGA	79	%39,24	20	15	12	0	1	0	0
ARAMA	131	%33,58	34	26	22	1	3	0	0
ATAUN	1.421	%26,95	472	283	244	6	3	4	0
BEASAIN	9.921	%36,63	1.312	1.757	1.063	1.066	452	441	24
EZKIO-ITSASO	440	%24,54	146	51	84	4	0	1	0
GABIRIA	361	%28,25	54	45	154	0	6	0	0
GAINTZA	112	%50,00	24	12	17	0	2	0	0
IDIAZABAL	1.623	%34,75	260	327	368	28	34	17	1
ITSASONDO	536	%34,75	157	90	60	14	15	13	0
LAZKAO	3.962	%35,46	784	721	322	355	136	179	2
LEGORRETA	1.199	%33,19	223	303	70	97	62	22	0
MUTILOA	149	%42,28	27	24	24	1	6	2	0
OLABERRIA	952	%43,38	116	137	98	98	60	41	3
ORDIZIA	7.549	%36,85	1.253	1.089	704	659	470	427	5
ORMAIZTEGI	950	%25,68	186	282	165	8	15	10	1
SEGURA	1.018	%23,87	246	189	296	8	14	3	0
ZALDIBIA	1.279	%33,15	496	125	119	45	35	19	3
ZEGAMA	1.149	%32,37	278	113	333	14	21	6	0
ZERAIN	186	%37,63	44	38	31	2	0	0	1
GUZTIRA	33.017	%36,66	6.132	5.627	4.186	2.406	1.335	1.185	40

GOIERRITARTXOA MINTZO, ALDIZKARIAREN LOGOTIPOKO PERTSONAIA GOIERRITARRA: izan eta esan 5 urte beteetan

Goierrirako eginiko
Geuskara hutsezko
komunikabide
bakarra den
"GOIERRITARRA"
aldizkariak 5 urte bete ditu
94ko azaroaren haseran.
"Goierritartxo" a, gure
pertsonaia mintzatu zaigu
ospakizun hau dela eta.

Aspaldixen jende berri ugari hartzen nau debalde. Hoietak askok "gauza berria" eta udaletxeek ateratakoa naizen ustekoak omen dira. Holako makina bat uste ez hain zuzen bada jendearen artean. Hoieta, eta 5 urteotan eukitako martxaz hitz egin nahi nuke. Inoiz kontatutakoak eta kontatu gabekoak. Geure inguruko komeriez liburu bat idatzi genezakeen...

Irakurlearentzat hoberena Beasaingo festetako GOIERRITARRA (47 zenb.) irakurtzea litzateke. Han jartzen



Gure "Goierritartxo" gaztea eta sinpatikoa da, ez da "goierri-ar-txo-a" (Txillardegiko "Goierritartxo"ren aldekoagoa izan arren), sexu-jakinik gabekoa baizik, "punki" bezala ere izan da bataiatua (!). Oso ezaguna egin da, baina ez da ez jainkotxo ez eta deabrutxo. Inoren aurka ez, baino Goierriren alde lan egiteko dago.

ditu nere kontu eta koitak serio-serio. Geroztik, gauzak asko hobetu dira hemen: udaletxe eta instituzioen laguntzak lortuta, herrietako kronisten sarea osaturik, aldizkarian jarduten dugunon egoera ia normalizaturik, ondarearen jabetza seguru... Zorionak, beraz, GOIERRITARRA-ren proiektuan sinistu du-zuenoi!

Aita-amak, alma materrak

Hasieran merke-merke saltzen ninduten han eta hemen. Gure "aita-amak" (Jon Mikel Arano, Aitor Larrañaga, Josune Agirre, e.a.) ahal zuten bezala ibilitakoak dira eta, "alma materrak" bakar xamarrik geratu zirenean, atarramendu onik ez zela eta zer arraio egiten hasi behar ote ziren galdezka hamaika buruhauste izan zuten.

Gero laguntzaileak iristen hasi ziren: Andoni Sarriegi, Tere Irastortza, Jon

Imanol Iturrioz, Patxi Zubizarreta, Mikel Leunda, Xabier Narbarte, Mikel Albisu, Ane Martin, Nekane Altuna, Rosa Amundarain, Jesus Munduate, Dionisio Amundarain, Mikel Aramendi, Xabier Gartzia, "Maizpi", Joseina Etxeberria, Garbiñe eta Elisabet Ezkurdia, Rufino Iraola, Antonio Berasategi, Andoni Aizpurua, Amaia Balerdi, Estitxu Imaz, Koldo Zubeldia, Xabier Urteaga, Marijo Madariaga, Joxean Ormazabal, Xabier Mendiguren, Joxe Begiristain, Iñaki Amundarain, Jon Aldanondo, "Ateari", Iñaki Murua, Gabino Murua, Arantxa Arza, Antton Idiakez, Pello Aranburu, Xabier Gonzalez, Joxe Zufiaurre, Mirentxu Etxezarreta, Arkaitz Arruabarrena, "Bizargorri" eta abar luze bat. Lau txoroen proiektua 400 zentzudunena bihurtu da geroztik.

Bien bitartean, denetik izan da gure erredazioan: ikaragarritako nahigabeak eta baita poz galantak. Oñatiko inprimategian egiten genuenean, Udanako portuan izaten zen beti elurra, euri-jasa eta ekaitza. Orriak aldrebestuta ateratzen zirela, akatsak zirela, nere sortzaileen bihotzak estutu izan dira hamaika aldiz produktu bakoitza burutzean. Berri onen artean, ez da ahaztekoa "Rikardo Arregi" kazetaritza saria lortu izana edo euskararen alde egindako lana.

Asmoz eta jakitez

Baina, behin debaldekoa izatea lortu eta gero, orri hauen egileei loa gehien galerazi izan diena, hilabetekaria hamabosteroko bihurtzea izan da. Goierritartxo honek eutsi beharreko pisua, aldapa gora sarritan, ez da xamurra izan. Jende batek ez gintuela ententitzen; udaletxe batzuetan ez bezala, bestetzutan ez ginela ondo erortzen; honen edo haren esijentzia egiten zitzaila handik eta hemendik.... Filantropo aberatsak ez ginenez, aldizkariaren erantzukizuna norbaitena izan beharko zuen eta udaletako ateak jo genituen soluzio baten bila.



GOIERRITARRAko kide batzuk.

Nolahalako txosten baten ondoren, politika sartu zen tartean eta alderdi politiko ezberdinen arteko sanwix-a bilakatu ginen. Hauei esker ere, azkenean gauzak konpondu dira eta gaitzerdi. Bidean eta kunetan gauza batzuk geratu dira. Eskatutako elkarrizketa batzuk ez dira aterata, eta ateratakoetan gauza asko gelditu dira "off the record". Erre ke erre, geneuzkan bitartekoekin aurrera egin behar, ordean, ez ordekan.

Asko baitziren "liburua" (sic) eskatzen zigutenak, asko nitaz interesatzen, behartzen zirenak eta bertan behera ezin zen utzi guzti hau. Geroztik ia normalizatzerara arte iritsi da egoera. Gizarte-aseguru eta guzti daude, makina bat atze- aurre eginez egunero nirekin dabiltzanak (Loinaz, Mikel, Jon Mikel eta Argider). Horretarako eta horretatik bizi dira. Gogor lan eginez, zuek, irakurleok, zuen aletxoan izan dezazuen.

Bitxikeriak bitxikeri

Atera izan dira mila kontu, flax, bitxikeria eta xelebrekeria. Asko geratu dira tintontzian, ordean. Anekdotarioa egiten hasi eta mila nahaste, ahazte eta



borraste. "Goietarra" izenean bidali izan diote kartarik gure Josuneri. "Gohierritarra, Gohierritarrak, Goyerritarra"... izendatzen gaituzte. Edo "Loinaz Agirre Jauna" zuzendariaren izenean. Serioagoa delakoan ere bai, euskara besterik ez duen "azkarren" batek erdaraz. Jakina, harreman txukun askoak ditugu bi hizkuntzetan jende gehienarekin.

Behin baino gehiagotan hunkitu izan gaitu zein irakurleko leial eta zintzoa dugun sentitzeak. Oso hurbil baititugu

goierritarrak. Ikusi egin behar ze mila modutako jende inguratu ohi zaigun erredaziora! Gure kronista eta kolaboratzaileei txalo-zaparrada bat bidali nahi genieke eta urte askotarako esan.

Entzun lehenik, mintza azkenik

Bai eta zuri ere, irakurle edota iragarle, aukera ona egin duzu; zu gabe inor ez ginateke izango, zu zaitugu hemengo nagusia. Egia esan, geure artean, "ordena zorrotzak" emanda dauzkagu: edozeinek ulertzeko moduan idatzi behar da, labur, intereseko gaiekin, zehatz, denontzat, argi eta garbi, zein ondo idazten dugun nahikerian sartu gabe, hemengo idazkeran; abisuak eta iragarpenak eskatuta bezala. Bestelakoetarako bai baitaude bestelako medioak.

Jeneralean, kritikagarria dena esaten zaigu bakarrik: beste guztia ondo egingo dugu, aidanez. Izan ere, tabernan edo iritzia ematetik idaztera alde handia dago: informatu, papera eta boligrafoa hartu, pentsatu, idatzi... ez du edozeinek egiten herri honetan. Animatu zaitez!

Ekin eta jarrai

89ko azaroan atara zen argitara nere 1. zenbakia eta, hasiera batean salneurri sinboliko bat baldin banuen ere, laister hasi ginen, gainontzeko prentsa lokalaren gisa, dohain zerbitzatzen hilabetekaria hala nahi zuen edonori. 4 urte justu betetzen dira, beraz, dohainekoa naizenez geroztik eta orain dela ia urtetebe ezkerotik hamabostekaria naiz.

Goierriin gehien banatzen nautena nauzue: 4.000 aleko tiradaren bila

goaz. Horietako 500 bat ale doaz Goierrikan kanpora. Denera 3.500 harpide inguruk hartzen naute eta gainontzeko aleak eskualdeko zenbait leku publikoetan uzten dira. Nire sortzaile eta "guraso"ek, "Goierritarrak" Kultur Elkartekoek, 14.000 irakurle inguru ditudala estimatzen dute. Euren helburua 6.000 harpide inguru eta 18.000 bat irakurle edukitzea litzateke, Goierriko euskaldunen txoko gehienetan. 57. zenbakian goaz, laister izango da 100.a. 2.000 urtea hor dago eta haziko al naiz laguntzak mediante!

Gero jator eta atsegina



BASAKANA

ITURRIOZ 11
BEASAIN

**ALTZAGARATE
JATETXEA**


■Leku aproposa bataio, jaunartze, eztaia, e.a. ospatzeko
■Bazkari, afari, meriendak...

88 41 96 Tfonoa ALTZAGA

IBAI - ONDO

ZURGINTZA
HALTZARIAK
P.V.C.ko LEIHOAK

Tailer eta erakusketa:
Antzizar Auzoa, z/g.
Tfonoa: 880543 BEASAIN



Gureak Taldeko Guregas-en lehen gasolindegia Tolosan

Azaroaren bukaerarako irekita egongo da Tolosan "Gureak" Taldeak sortu berria duen "Guregas" enpresako lehen gasolindegia. Gutxitu psikiko eta fisikoak enplegatzeaz aparte, kontsumitzaileari ahalik eta zerbitzu onenak eta gehienak ematea da bere asmoa.

Duela 6-7 hilabete hasi ziren obrak eta aurreko hilerako irekita egongo zela aurreikusten bazen ere, gauzak atzeratu egin dira. Badirudi, ordea, oraingoan baietz, hile honen bukaerarako Euskal Herrian eta Estaduan honelako ezaugarriak dituen lehen esperimentzia martxan jarriko dela, hau da, aurrenekoa izango da bertako langile guztiak baliourrituak dituen.

Gasolindegia berezia

Eraiki berri den gasolindegiairen helburu bat pertsonak enplegatzea denez, 8 baliourrituko langilegoa izango da bertan (fisikoak eta psikikoak, zentzuekiko urritasuna duenik ez dago). Langile hauen perfila: gizonezkoak, 25 eta 35 urte bitartekoak, ia denak langabezian zeudenak eta Tolosaldean bizi direnak. Beharrezko lagunak aukeratzeko, Inem, Gureak, Tolosako Udaletxea eta egunkari-ko publizitatea erabili izan dira iturri bezala. Haseran, enkargatua baliourritasunik ez duen pertsona izango da; hilabete batzuren ondoren, 8ko talde hortatik aukeraturiko da enkargatua. Gasolindegia ireki aurretik, langile guztiak prestakuntza kurtso bat hartu dute Madriletik etorri den monitorea batez.

"Gureak" en harremanetarako dagoen Begoña Atin gabiriarrak esan digunez, "guretzat oso inportantea da pausu hau, baliourritu hauek tratatu zuzena izango dutelako bertara hurbiltzen diren bezeroekin".

Promozio-opariak hasieran

Tolosaldeko "Galtzaundi" aldizkari-koekin mintzatu da enpresako gerentea den Mikel Elorza. Horiek dioenez, "Guregas" proiektua bi urte t'erditik hona



dator; Tolosan zerbait egitea posible zela ikusi eta buru-belarri sartu ziren. "Gasolindegia bateko lana aurrera eramateko ez dugu uste ezer berezirik behar denik, eta zentzu honetan baikor azaltzen gara".

Gasolindegia eta bestelako zerbitzuetan harreman pertsonalak galtzen ari direnean, "Guregas" ekoek aurkakoa potentziatu nahi dute, ahalik eta zerbitzu

gehien eskeiniz, hala nola, besteetan ez daudenak: olio-aldatea, gorpilen begiratzea edota kristalak garbitzea dohain eskeinitiko da. Autozerbitzua ere izango da, askok nahiago baitute. Lehenbiziko egunetan promozio eta opari bereziak izango direla azpimarratu du Mikelek: "Gureak" en produktuak hauek ere.

Erabiliko diren erregaiei marka ofiziala "Petronor" izango da; hortik etorriko zaie finantziaketa. Jendea enplegatzeagatik ere subentzioak ematen direnez, "diru gutxi gastatuko du 'Gureak' enpresa honetan". "Guregas" ek aurrera begirako beste honelako proiektu batzuk baditu, baina lehen apustua Tolosakoa da. "Orain bakarrik jendea hurbiltzea falta da, lehen ondorioak atera ahal izateko".

 Mikel Aramendi

Gureak Taldea

"Gureak" Tailer Babestuak eratu zirenean 75.ean ("Atzegi" k banantzeko bidea libre utzi ziola) gutxiengotu psikikoen integrazioa (bai lan munduan eta bai gizarte mailan ere) errazteko asmoz, ezinezkoa zen ekimen hark urteak medio lortuko zuen pisua eta neurria aurreikustea. Irakurleak 92ko uztaileko 26. GOIERRITARRAN Joxe Mari Iruin zaldibitarri eginiko elkarrizketa irakurtzea besterik ez du erakunde horren bilakaeraz jabetzeko.

Tailer gutxi batzuekin hasi zena enpresa taldea bihurtuta aurkitzen dugu. Tailer babestuen lehen pausuak subkontratazioan oinarritu ziren: montaia eta mekanizatuak, ontziratze eta enbapenak, e.a. Geroztik aktibitateen dibertsifikazioa nagusitu da eta arlo bakoitzeko enpresak egituratu dira. Plastikoen injekzio eta erreziklaia lantzen du "Goiplastik" ek, hasi eta akabo: material honekin egindako imajina daitezkeen gauza guztiak. "Gupost" publizitate zuzenaz eta korrespondentziaren tratamenduaz arduratzen da. "Gudat"



Itsasondoko tailerreko langileak

dute informatikako datu basea. "Goroldi" da loragintzara dedikatzen dena: Zeraingo loragintza eta paisajismoa bere gain egon da, Lazkaon garbiketa lanetan ari dira, Ikaztegieta ere egin izan du eta Beasaingo parkeen loragintza honen esku dago. "Goiar" erropen garbiketa industrialena da eta "Galant" bestelako garbiketena.

Estaduan zehar ordezkariak baditu, baina Gipuzkoa da tailer eta enpresa gehien dituen lurraldea, 15 (Tolosa, Legazpi, Ordizia, Itsasondo...). 1.500 enplegatu ditu guztira.

Atzoko gazteen omenez

Ezkiokoak eta Itsasokoak biltzeko egun seinalatuenetako bat badu urteak: urriko azken igandea. 80 lagunetik gora aurtengoan ere zaharren omenez. Udaleko Ongizate Batzordeak eta zenbait herritarrek antolatzen dituzte urriko azken aste horretako ekitaldiak. Hasteko, igandeko bazkariara joaterik ez dutenei bisita egiten zaie farde-la eramanez, bazkariaren lekuan, 65 urtetik gorakoek dohan baitute. Era honetan, oraingoan 15 bat etxe bisitatu dira eta elkarren berri jakin.

Eta igandean, urriaren 30ean, Sta. Lutzin Meza Nagusian bildu, atsegin handiz bertako koralak entzun, dantzariak lanean ikusi, Arantzadiren bertsoez gozatu eta Elkarreak eskainitako salda paregabea hartu ondoren Itsasoko Ostatuan, iaz bezala, aparteko jan-festaz disfrutatu genuen. Kafe garaian, trikitilariari atsedentxo bat emanez (aurten Itze- Goikoa eta Eluzeagakoa), opari zozketa izaten da eta batzuek ez dute zorte makala. Zorionak!

Urola Garaia Udal-Elkarrea

Ezkio-Itsaso udalerria Urola Garaia Mankomunitatea sortu zenetik partaide



da Legazpi, Zumarraga eta Urretxurekin batera. Oraingo agintaldian Zumarragakoei dagokie lehendakaritza, bertako alkatea, J. Julian Irizar, buru delarik. Aurtengo Batzar Orokorra egiteko parada Ezkio- Itsasori egokitu zitzaion eta, hala, Sta. Lutziko Kultur Etxean bildu ziren urriaren 28an, aipatu lau herritako alkate eta zinegotziak.

Batzar Orokorren egitekoa, batek, 1993ko aurrekontuaren kitapena izan zen, eta bestetik, Urola Garaia Udal-Elkarreak aspalditik bultzatu nahi duen Lanbide Heziketako proiektua onartzea. Ostiralean aurkeztu eta onartu zen proiektu honek (EAJkoak ezik beste

guztiak alde agertu ziren) badu aldaketarik orain artekoak ikusita, zeren Zumarragako monjen San Jose Ikastetxea erostea eta bertan Lanbide Heziketa, Legazpi Eskoletako Elkarrearekin, ezartzea proposatzen eta suposatzen baitu. Erosketa horren dirutza 350.000.000 pezetatara igoko litzateke eta Diputaziotik eta eskualdeko entresetetik diru laguntzak espero dira. Horrez gainera, gaur egungo Lanbide Heziketa behar bezala hornitzeko ekipamenduak eta gainerakoak ere erantsiko litzazkioke.

Fundazio irekia osatuko da, gehien-go Urola Garaia Udal- Elkarreak izango duelarik eta parte hartu, gainera, entresak, Legazpi Eskoletako Elkarreak eta baita, hala komeni bada, beste zenbait erakundek ere. Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzaren ondorengo irakaskuntza izango du helburu: Batxilergoak eta Berriazko Lanbide Heziketa.

 **Pilare Mujika**

KUKO

Jatetxea

Kuko, gure txef-ak zure sabelak eskertuko duen menua eskeintzen dizu:

Astelehenetik ostiralerara menu bereziak.

Eguerdietan 2.000 pza. + BEZa

Toki mugatua dago, eskaerak aurrez egin. On egin diezazula!

Berjaldegi plaza z/g
Tfnoa.: 88 28 93
ORMAIZTEGI

BARANDI



TABERNA

Ampuero, 1 (Geltoki aurrean) Tf.: 16 13 18 ORDIZIA

KEMEN KIROLAK



Zumalakarregi, 1
Tfno.: 88 51 68
ORMAIZTEGI

Jose Mari Salinas

Auto elektrizitatea

Erreminta elektriko erabilgarriak
Konponketak

Enatarriaga etxea, Iurre auzoa
Tfnoa: 88 21 49 BEASAIN



Urte askoren ondoren dator rugby zelaiko arazoaren irtenbidea.

ORDIZIA RUGBY ELKARTEAK izango omen du zelai berri bat urriaren 25ean burutu zen ple-noan erabaki zenez. Urte askotan atze-ra eta aurrera erabili dugun gaia dugu hau, eta azkenik amaiera izango duela dirudi. Gehiengoz erabaki denez, rug-by- zelaia orain futbol-anexoa dagoen tokian joango da. Ezagutarazi dutenez, aurrekontua 82-83 milioi ingurukoa da. Guzti honek daukan gauzarik arraroe-na zera litzateke ordea, orain onartu-tako proiektua duela urte batzuk rugby taldekoek proposatu zutela eta orduan

atzera botea izan zela neurri kontuak zirela eta. Proiektua aurrera atera bada ere, gauza asko kolokan daude oraindik: zelaia gaur Oianguren Batxilergo Institutuarenak diren lurak hartzen di-tuela eta beraiekin hitzegin gabe daude; gainera, badirudi aurrekontua nolabait betetzeko Diputazioak 30 milioi jarri-ko dituela, baina hau ere batere zehaz-tugabe dago. Udalak urriak 3a baino lehenago aurkeztu behar zion proiektua Diputazioari eta oraindik zai daude. Guzti hau dela eta rugby taldekoek si-nesgogortasun batez hartu dute erabaki hau. Amaitzeko, esan proiektua burutu

ondoren Trebijano aprobetxatu nahian grabilazko bi futbol-zelai egingo dire-la.

EGUBERRIKO IGERI-KETA SARI NAGUSIA ikusi ahal izango dugu aurtengoan ere Ordiziako igerilekuan. Iazkoan Sabadellgo Igeri-keta Klubarekin elkartu ondoren igeri-lari olinpiko ugari biltzea lortu zuten. Dena den, kirol mailan emaitzak onak izan baziren ere, diru aldetik zuloa na-barria izan zen. Hau dela eta, Ordizia Igeriketa taldekoak Diputazioarekin harremanetan jarri dira eta honek di-rulaguntza eskaini die, jakin baitakite Sari Nagusia estatu mailako egutegiko probarik garrantzitsuenak dela. Aurten XII urteurrena ospatzen dute eta hasie-ra batean abenduaren 27 izango da. Iazko esperientzia ahaztu eta "Ordizia-ko Eguberriko Sari Nagusia, Diputazio Saria" izena hartuko luke. Oraingoa ere, nazioarte mailakoa izango da eta bertan inoiz egon den estilistari onena omenduko dute, Tamas Darniy hunga-riarra. Bi amerikar unibertsitatek beren parte hartzeko nahia ere eskeini dute, berau, ordea, diru baldintzapean gera-tzen da.

Aitor Calvillo

ARAMA

San Martin jaien egitaraua

Osteguna 10, Samartin Bezpera: 20.00etan Txu-pinazoa. 20.30etan Gazti-na-jana. Ondoren Errome-ria, Laja eta Landakanda-rekin.

Ostirala 11, Samartin Eguna: 10.00etan Alegiko Txistulariak. 11.00etan Meza Nagusia. 12.00etan Hamaiketako. 12.30etan II Pala Txapelketaren fina-la. 23.00etan Azkonobieta eta Joki-nekin erromeria goizalderarte.

Larunbata 12: 16.00etan Mus



Txapelketa herrikoia eta ume jola-sak. 20.00etan Herri afaria, bertsolari eta trikitilariak alaiturik. 23.00etan

"Zapotxin" taldearekin gaupasa. 01.00etan Ba-saurde tropikalaren harra-paketa.

Igandea 13: Meza Na-gusia. 12.00etan eskuzko pilota partiduak: Luis Te-llo-Igor Olazabal / Jon Bendoiro-Josu Olazabal. 18.00etan Herri Kirolak: Aramako "Idi-hezitzaileak

Altzagako "Txakurren" aurka. 20.00etan Gozategi Anaiekin erro-meria.

“Beasain jaietan” en lehen zenbakiak aurkitu dira

Orain dela hilabete batzuk, Jose Gabriel Zurbano Melero historiagileak, Beasain Jaietan aldizkariaren 1. go (1922an argitaratua) eta 7. aleak (1927an argitaratua) aurkitu zituen Tolosako erregistro probintzian. Urriaren 24an Udaletxeko Batzarre Aretoan aurkeztu zituzten bi aleak. Aurkezpen honetan alkatea eta kultur zinegotziaz gain, Jose Gabriel Zurbano bera eta gaur egun aldizkaria kaleratzen duten Beti-Biziko bazkideak izan ziren.

Ale zahar hauetan zenbait artikuluz gain, jaietako egitaraua ere inprimatzen zen erdialdeko orrialdeetan. Programa hauek gaur egun oraindik ospatzen diren zenbait ekintza jasotzen dituzte: prozesioa, tanborrada eta su artifizialak, alegia. Garai hartako aleek 8 orrialde besterik ez zituzten. Zurbano historiagileak aurkezpenean zenbait ezberdintasun azpimarratu zituen 1922ko alea eta 1927koaren artean. Ezberdintasun horietako bat, iragarki kopurua da. Artikuluetakoa gaiak herrikoia ziren, kirola ahaztu gabe.

Arantxa Aseginolaza kultur zinegotziak, aurkezpenean esan zuenez, “Beasain Jaietan” bilduma salmentan jarri eta erosi zutenek, bi ale hauen fotokopiak etxean jasoko dituzte.

Udazken kulturala

Dagoeneko amaitu da urriaren az-



ken bi asteak bete dituen udazken kulturala. Aipagarria izan da aurtengo programa eta honek izan duen martxa. Eta guzti hori, Kultura Batzordeari eta honek izan dituen laguntzaileei esker.

15 egunetan zehar musika ugari entzuteko aukera izan dugu. Bai kallean, bai Andra Mari Zerutarraren Parrokian, bai Udaletxeko Batzarre aretoan. Aipagarria da Loinatz tabernan ikusi ahal izan genuen kafe kontzertua blues-jazzeko Parkingsong's taldearekin.

Haurrek ere hainbat joku txapelketa eta emanaldietan parte hartzeko aukera izan zuten. Eta antzerkiei dagokionez Kafe- antzerkia eta kale-antzerkia nagusitu ziren herritarren gozamenetarako.

Txapelketa ere ugari izan genituen, horien artean Beasaingo III. Aire Zabaleko Pintura Lehiaketa. Bertan 53 margolarik hartu zuen parte, eta irabazleak hauek izan ziren: herri mailako gazteen kategorian Nagore Contreras; gazteen arteko kategorian (orokorra) Gorka Zubizarreta; herriko helduen kategorian Iñigo Fernandez; eta helduen kategorian (orokorra), Jose Luis Jaussik. VII. Errezil sagar Lehiaketa berriz, Olaberriako Balda baserriko Rosario Bitoriak irabazi zuen. Eta VII. Postuen Dotoretasun Lehiaketan, Maria Etxezarreta.

Aitzgorri Mendizale Elkarteak

Joan den urriaren 16an, Aitzgorri Mendizale Elkartek Murumendi eta Usurbe mendiak garbitzeko irteera antolatu zuen. 50 lagunek, eguraldi txarrari aurre eginez, 100 kilo zabor bildu zituzten. Hau ikusirik, Aitzgorri Mendizale Elkarteko zuzendaritzatik mendiak garbi mantentzea eskatzen zaie goierritar guztiei, mendia guztiona baita.

Zaborra biltzeaz gain, Luis Pedro Peña Santiago, hilberri den mendizale eta idazlearen omenez, plaka bat jarri zuten Murumendiko gailurrean. Bertan bere oroimenean meza ospatu zen mendizale guztien partaidetzarekin.

Izaskun Salazar



OTEGI-UNANUE


ERAIKUNTZA ORO EGITEKO PREST
Etxebizitzak berriak salgai Ordi-
ziako Elkano kalean
Bekokale 17-1.
ITSASONDO ☎ 16 02 22

GOIERRIKO KANPO KOOPERATIBA

Ganaduzaleek ganaduzaleentzat sortutako kooperatiba
MOTA GUZTIETAKO: Pentsuak, Ongarriak, Lantresnak

Euskalerrria Kalea
Industrialdea

☎ 88 04 15 ORDIZIA
☎ 16 07 07 OLABERRIA



MUGIK LIBURUDEDA

Kale Nagusia, 10. Tel. 88 11 94
ORDIZIA

Jubilatuen Eguna

Urtero bezala aurtengoan ere, jubilatuen eguna ospatuko da igande hone-tan. Ospakizuna eguerdiko 12etan, meza nagusiarekin hasiko da, Jubilatutako Elkarteko hildakoen aldeko mezarekin hain zuzen. Ondoren bazkaria izango dute Lierniako Mujika jatetxean. Autobusa jarri da Lierniraino joateko eta antolatzaileen aldetik bada ohartxo bat ere: etxean jubilatuen bat duzenoi, batzordekoei jakinarazteko.

Egun hau berezia izango da Mari Kruz Zendoia eta Jeronimo Aranarentzat, biak ere omenaldi beroa jasoko bait dute beren lagunen eskutik. Merzitako omenaldia biak ere. Mari Kruz adunarra da eta bere 86 urteetatik 20 daramatza Ormaiztegin bizitzen. 89 urteko Jeronimo Amasa aldean jaioa da, orain 22 urte etorria gurera.

Egun honetatik kanpo ere badute beste eginkizunik herriko jubilatuek. Jubilatutako etxean bertan, igandeak 13an, arratsaldeko 6retan gaztaina jatea dago aurreikusita. Hortxe aukera.

Mendi astea

Ormaiztegiko Kirol Elkartek mendi astea antolatu du, aste benetan potoloa egitarauari dagokionez. Aste-lehenak 14an hasiko da igandeak 20an



bukatzeke. Jende ezin hobea dator, beraien mendi esperientzia eta diaporama espektakularrak erakustera; besteak beste, I+urrategi anaiak, K2 mendiko gorabeherak kontatzeko eta, nola ez, herritar dugun Koke Lasaren abenturak.

Eguneroa izango da protagonista eta lurralde desberdin banataz ikasteko aukera. Asteari igandean emango zaio bukaera esan bezala, mendi irteera ba-

tez. Ibilbidea "Ormaizti" ingurua eza-gutzen emango da eta, arratsaldean, bukatzeko, gaztaina jana herriko plazan. Astean osoan zehar, bestalde, lehen Garden jantzi-denda zen loka-lean, bigarren eskuko mendiko material merkatutxo jarriko da.

Jon Aldanondo

LEGORRETA

Bideoa izan liteke zinema ezaren alternatiba

Legorretak aukera bat izan baldin badu, parrokiako zinemarena izan da, guraso elkarte eta halakoei zinema herrikoia ezartzen hasi ziren garaie-tatik. Parrokiarena izanda ere, bere gestioa Udalarari dagokio, datorren ur-tean bukatuko den kontratua agortu arte.

Azken ikasturtea itxirik darama herriko zineak (proiektore makina-ren arazoa dela medio, eta aurtengoan ere berdin gerta liteke, neurririk hartzen ez bada), konponezinak daudelako Udala eta Eliz-parrokiaren artean. Udaletxeko ordezkaria den Xabier Iraolak, honen inguruko

problematika aurkeztu zuen zinean eginiko bilera irekian. Laburtuz, esan liteke filmeen proiektzioarako makina berria beharrezkoa dela; inbertsio hori egiteko prest dagoen Udalak, kontratua nahi du luzatu; Parrokiak, ordea, Iraolaren hitzetan beti, negozioazio honetaz hizketa egiten hasi aurretik, beste negozioazio bat jarri nahi du mahai gainean: elizaren eraikinaren estruktura arazo larriak eta Udalaren parte hartzea konponketan.

Bertan ziren gurasoak oso kezkatu-rik agertu ziren eta denboraldi honetan bideo pelikula zineman bo-

tatzeko aukera planteatu zuten, edota Kultur Etxean bideo-areto bat jartzeko aukera, baldin eta akordioaren ba-tera iristen ez badira. Joandako hilean bilera bat egitekotan ziren Dipu-tazio, Obixpadua, Udala eta Parrokiaren artean.

Litekeena da hurrengo alean guzti honen berri zehatzagoa ematea posi-ble izango zaigula, Xabier Iraolak agindu digunez.

Josune Amondarain

94ko San Martin Jaien egitaraua

Azaroak 5: 24 orduko areto futbol tapelketa Kiroldegian, 12.00etan hasita.

Azaroak 6: 10.30etan areto futbol txapelketaren finala. 12.00etan Ataungo Hiru Auzoetako XVI. Korrikaldia. 13.30etan haurrentzat kalejira trikitilari eta buruhaundiekin. 14.00etan haurren bazkaria Gabillenen. Ondoren haur jolasak. 17.00etan haurrentzat jaialdia Auskalo taldearekin.

Azaroak 11: 11.00etan Meza Nagusia. 12.00etan adineko guztientzat salda beroa Atsedan Toki elkartearen bertsolariekin. 13.30etan 80 urte bete dituzten 12 agureei omenaldia Bittorrenen. Ondoren bazkaria. 17.00etan haurrentzat zinema saioa Oargin. 22.30etan bertso jaialdia: Egaña, J. Sarasua, S. Lizaso, Peñagarikano, Iturriaga, J.



Munduate. 24.00etan Drindots taldearekin dantzaldia.

Azaroak 12: 12.00etan Toka txapelketa. 12.30etan, poteoa txarangaz alaiturik. 14.00etan kuadrilen arteko bazkaria Urbietan. 16.30etan Mus txapelketa Oargin. 21.30etan Kontzertua: Platero y tu, Su ta Gar eta Barricada. 00.30etan Drindots taldearekin dantzaldia. Goizaldera txokolatada eta matutina.

Azaroak 13: 12.00etan Lizaritzako dantzariak herriko plazan. 18.00etan jentilaren etorrera. Ondoren mondeju jana trikitilariekin. 22.00etan dantzaldia trikitilariekin.

LAZKAO

Taberna berri bat martxan

Herriaren erdi-erdian, frontoi parean, Alboka Taberna zabaldu du Doltza Begiristainek. Bere gurasoak dira Kiroldegiko tabernan arduradunak eta esan liteke garai bateko eta egun desagertu den Karmen-enea tabernan jaio eta hazitako Juan Marik, baduela familian jarraitzailea. Oso handia ez den baina txukun prestatu duen taberna beraz, Alboka.

5.000 biztanlera iristen ez garen herrian badugu egarria non ase! 20 bat taberna bai baitauzkagu, Elkartek kontuan hartu gabe.

Santu guztien eguna

Sinestun izan edo ez izan, guztiok jai izaten dugu azaroaren leian, Santu guztien egunean, astearte gorria aurren. Egia esan guzti-guztiok ez dute jai izan, loragintzan lana egiten dutenek garai hau baitute lan gehieneko urte-sasoia. Familia eta inguru hurbilean hildakoak gogoratzu, landare eta



lore-sortak hilerrietara eramateko ohitura ez da gaurkoxea. Egun honetan inoiz baino txukun eta dotoreago izan zen Lazkaoko "Luberri" ere.

Heriotza eta jaiotzen inguruko kopuruei buruz, esan, aurtengo urtea bukatzeko bi hilabete luze geratzen diren honetan 45 haur jaio direla gure herrian eta hil, berriz, 23 lagun, 14 gizonezko eta 9 emakumezko.

Goiherriko Euskal Eskolak antolatu dituen ikastaroak

Ikastaro hauen berri jakin nahi duenarentzat, 8. orriko deialdietan zabalago azaltzen dugu.

Gripearen aurkako txertaketa

472 lazkaotarrek hartu dute aurren gripearen aurkako txertoa. Hauetatik 226 gizonezkoak dira (157, 65 urtez gorakoak eta 69, 65 urtez behekoak). Emakumezkoak berriz 246 izan dira (169, 65 urtez gorakoak eta 77, 65 urtez behekoak). Iaz berriz 219 gizonezko eta 188 emakumezko txertatu ziren.

 Mari Joxe Madariaga

Lau miloiko gastuak Santafetan

Festetako gastuen gainean ale hone-tan berri zehatzagoak emango genitue-la promes eginez amaitu genuen aurre-ko kronika. Esku artean ditugu, bada, zehaztasun horiek, Kultura Batzordeko buru den Garbiñe Mendizabali esker, eta hona denak zuentzat. "Zeinen egoera ekonomiko gogorrean aurkitzen garen jakinik, gastuak kontrolatu beharra zegoen, baina programan asko ez igartzeko moduan ezarri dugu kontrol hori", esan digu Garbiñek. Oso balorazio baikorra omen da berea aur-tengo festei dagokinez, Festa Batzor-deak eta herritarrek izan duten portaera kontutan hartuta.

Hala ere, hutsuneren bat edo beste ere izan dela aipatu diogunean, adibi-dez, Santa Fe egunean bertsolaririk ez jartzea, ohartu dela erantzun digu. De-na dela, proposamen hori, dirudienez, ez zuen batzordean inork aurkeztu. Guztiarekin ere, berari dagokion erantzukizun kuota bere gain hartzeko prest dago. "Berrirori horrelakorik ger-ta ez dakigun, nota hartu dut" gaine-ratu du. Beste kritika baten berri ere eman diogu: ekitaldi asko enpresaren baten bidez kontratatatu direla, gastuak erruz igoz. Zorrotz erantzun digu: "Jendea kezkaturik egotea ona da, baina, puntu honetan, azpijana ez bada behintzat, ezjakintasun na-barmena dago. Gaur egun espekta-kuluetan dabilzanek, ia denek, en-presa espezializatuen bidez funtzio-natzen dute. Ez dakizue zenbat au-rreratzan den: bai denbora, bai diru, nola erosotasun hala garantia alde-tik".

Norbait poltsikoak ederki berotzen ari deneko konturik ere badabilela esan diogu eta hori gezur galanta besterik ez dela erantzun digu. "Gehiago esango dizut: baliteke zenbait taldek enpre-



Garbiñe Mendizabal, Kultura Batzordeko buru.

saren bidez zuzenean joanda baino merkeago egitea". Festak 7 miloi kostatu direla esanez dihardunik ere badela jakinarazi diogunean, mahai gainean ipini digu likidazioa: 4.416.892 pezeta. Sarrerak, berriz, Kutxa Fundazioa eta paineluen sal-mentei esker batez ere 350.000 pezeta ingurukoak izan dira. Beraz, gastuen 4 miloien kontua dator.

Gazte Asanblada

Gazte Asanbladak eskerrik beroe-nak eman nahi dizkie Santa Fe jaietan euren txoznara hurbildu diren guztiei eta batez ere esku bat bota dieten guraso eta gazteei. "Aurten lehen urtea izanik, nahikoa balorazio baikorra egiten dugu txoznako lanari buruz" jarraitzen du komunikatuak. Musika aldetik etab. akatsak izan dituztela aitortzen dute gazteek eta hori dela medio kaltetuak izan direnei barkamena eskatzen. "Jaiak pasa ondoren, Zaldibiko Gazte Asanbladak (ZGA) lehengo dinamika berberarekin segitzeko asmoa du eta ekintza horietan erabiliko dugu txoz-nan ateratako dirua" esaten da gero aipatutako agerian. Bestalde, jai haue-tan sobran geratu omen zaie zenbait material: nikiak, edariak... Lokal baten premia ere azaltzen dute.

Gaztañaga garaile ehizean

Gaztelu Elkarteak urtero antolatzen duen ehiz lehiaketan, Eneko Gaztañaga atera da aurten txapeldun. Klaudio Jau-regik lortu zuen 2. postua eta Inaxio Irastorzak 3.a. 4., Aritz Mendizabal geratu zen eta 5. Justo Salaberria. Ira-bazleak 8 pieza bota zituen; 7, bigarre-nak eta 6, hirugarrenak. Guztira 20 partaide izan ziren. Lehiaketari ekin aurretik, 40 faisán eta beste hainbeste eper libratu zituzten. 80 hegazti haue-tatik 57 bota zituzten ehiztariek: 36 faisán eta 21 eper.

Mendiko zinema zikloa

Gaitzat mendia duten pelikula sail luzearen emanaldia hasiko da Zaldi-bian egun hauetan, azaroaren 24ean amaituko delarik. Kultura Batzordeak antolatu du emanaldia, Kutxa Funda-zioaren babes ekonomikopean. Hel-burua da mendizaleak eta natura maite duten guztiak lekurik zoragarrienekin kontaktuan jarritz, naturak berak erai-kitako momentuez jabetu eta gozaraz-tea. Egitaraua agendako egutegietan aurkituko duzu irakurle.

Kultur Etxearen antolaketa

Azaroaren 14tik aurrera zenbait al-daketa izango da Kultura Etxean. Arratsaldeko 5etatik 7,30ak arte egongo da irekirik, astelehenetik osti-ralera. Eskainiko diren zerbitzuak ho-nako hauek dira: liburutegia, ludoteka eta musika. Zerbitzu hauez kanpo, bes-te zenbait gauzetarako ere, erabil ahal izango da Kultur Etxea, baina, kasu honetan, Kultura dinamizatzaile/Kirol koordinatzaileak adieraziko du noiz eta nola.

 Rufino Iraola Garmendia

INABE

ERAIKUNTZAK S. A.

Mota guztietako eraikuntzak

Sanperio, 2

☎ 883829

ORDIZIA



LADA

ARANDIA

Garajea

AUTOEN KONPONKETA

N-1, z/g

Tfona: 88 09 47

Iurre auzoa

OLABERRIA

Zerain-Portala: obren 2. fasea noiz hasiko zain



Lanen 2. fasea ikerketa eta subentzioen zain.

50. hamarkadan eta praktikotasuna erizpide bezala hartuta (kamioiak e.a. pasatzeko lekua behar zela eta) arkua zabaldu eta altutu egin zioten, jatorrizko harriak desagertaraziz. Nahiz eta ez jakin noizkoak diren, Lesakako presatik aurrera, Zerain-Portaleko jatorrizko hainbat harri aurkitu da.

Hau honela izanik, eta Diputaziotik subentzio bat jasotzeko aukera zegoenez, sarrera hori berriztatzea erabaki zen. Sanjoanak aurretik bukatu zen berriztatze lanen lehen fasea: arkua jatorrizko neurrira ekarri da, zoruko kalzada berritu eta ingurua txukundu da.

Oraindik hastear dagoen 2. fasean,

arkutik kanpoaldera dagoen guneari ere jatorrizko itxura eman nahi zaio, zoruari batez ere. Ikerketa eta subentzioaren zain daude lanari ekiteko. Berriztatzearen 3. eta azken fasean, jatorriz publikoa zen eta momentu honetan partikularra den Gebara Jauregiko zati bat berreskuratzeko asmoa dago.

Odol-emaileen afaria

Azaroak 5, larunbatean, 19.30etan meza bat izango da hil diren odol emale guztien alde. Iluntzeko 9retan, berriz, afaria, Zopajale Elkartean, 2.000 pezetan. Afalondoa gozatzeko eta alaitzeko bertsolariak izango dira. Bestalde, aipagarria da Luli Telleria herritarrari pasa den urriaren 26an, beste zenbait goierritarrekin batera, egin zitzaion omenalditxo, 25 aldiz gutxienez odola eman izanagatik.

Iñaki Artola Kubara

Espainiako pelota federazioak deituta, eta beste hiru pelotari nafarrekin batera, hainbat pelota partidu jokatzeraz joango da Iñaki azaroaren 7tik 18ra.

 Joseba Telleria

IDIAZABAL

Eduardo eta Iparraren omenez

Igaro dira dagoeneko 10 urte Eduardo erori zela, eta 20 urte Iparra erahil zutela. Bi gudari gazte hauek herriarengatik eman zuten bizia eta orain, 85. urtean hasita gaurdaino, Kimu Kultur Elkartek omenaldi xume baina bero bat eskaintzen die. Urtero-urtero omenaldia antzeko ekintzek osatu badute ere, aurten bada aldaketarik. Lehenik eta behin, data jartzeko garaian atzerapen txiki bat izan da, "zorioneko" hauteskundeak erdi-erdian tokatu baitziren, eta kanpaina edo aurrekanpaina garaia ez omen zen garai aproposa bi "pertsoneia" ohoretsu hauek omentzeko. Ondorioz, azaroaren lehen egunak, 4,

5 eta 6a aukeratu ziren.

Egitarauari dagokionez, haxe da eskeiniko zaigun ekintza sorta:

Azaroak 4: "Malcom X" pelikularen emanaldia pantaila handian, Kultur Etxean, 19.30etan.

Azaroak 5: *Mus txapelketa azkarrak, Kimu Kultur Elkartean. Izena emateko epea arratsaldeko 4etan amaituko da eta bikote bakoitzak 2.000 pzta. utzi beharko ditu. Jokua; 4 errege, 3 uste eta 6 hamarrekotara izango da.

* Donostiako "Eskola" dantza talde ospetsuaren ekitaldia Igarondo pilotalekuan, 22.30etan.

Azaroak 6: Goizeko 10etan, herriko plazatik Atxurbi gudari mendira ohizko igoera. Han erorien lekuko izango diren bi pago aldatuko dira. Ekitaldia txalapartarekin hasi eta trikitixa, bertso, txistu, olerki, kantu e.a.ez osatuko da. Ondorenenan guztientzat hamaiketako izango da eta bertan lagun arteko bazkaria eginez bukatuko da omenaldia.

Kimu Kultur Elkartek guztiek gonbidatzen zaituzte ekintzetan parte har dezazuten. Aurrez mila esker guztioi.

 Aloña Galarraga

XABIER IMAZ SEGURAR PELOTARIA PROFESIONALETARA IGO DA

“Oraingoz ikasi eta igotzen joatea nahikoa da”

Asegarcerekin fitxatu berri du Xabier Imaz 20 urteko gazteak. Ez dira gutxi orain arte lortu dituen txapelak: benjamin eta alebinetan GRAVN txapelketan bigarren geratu zen, infantil eta prejuveniletan txapeldun, juveniletan Espainiako txapeldun, afizionatuetan Espainia eta Munduko txapeldun, beste hainbat txapelketa eta torneo gain. Baina, benetan gogoan dituenak Segurarekin irabazitako bi Herriartekoak dira, bat juvenil bezala eta bestea afizionatu bezala. Hau dena lortzeko beti izan du Patxi Etxeberria ondoan eta berak ere badu merituen zati bat.



Xabierrek txiki-txikitatik izan du Patxi Etxeberria ondoan, eskergarria da bere lana.

GOIERRITARRA.- Orain arte zer eman dizu pelotak?

Xabier Imaz.- Poz handia, asko gus-tatzen zait egiten dudana eta momentu oso onak pasa ditut.

G.- Eta zeri esan behar izan diozu ezetz?

X I.- Kirolak denbora jaten du, baina gustokoa denez errazago gaintitzen da. Zerbait nahi duenak sakrifikatu beha-

rra du eta erresponsabilitatea izan. Gustora egingo nituen hainbat juerga eta kontu alde batera utzi ditut.

G.- Mundiala irabazi berri duzu, zer moduzko esperientzia izan da?

X I.- Oso polita, kanpoko pelotariekin harremanak, jende asko ezagutu... Bai-na kirol aldetik maila bajua egon zen. Askoz ere gehiago disfrutatu nuen Fe-

derazioko finalean edo Herriartekoan, hor emozioa gainezka egon zen eta oso polita izan zen.

G.- Afizionatuetan dena lortu duzu, orain profesionala zara.

X I.- Oso sensazio polita da, nire ame-tsetako bat lortu dut. Bide berri bat hasi dut eta ikasten joan behar naiz piska-naka gorutz joateko. Mentalizatu beha-rra dago, orain arte nagusi bezala edo goian ibili naiz eta orain morroi bezala sartu naiz. Kontrarioak gehiago erres-petatuko ditut eta garaipenak etorri behar badira etorriko dira.

G.- Pelota asko aldatu al da?

X I.- Enpresak desagertu dira eta Ase-garce azaldu da. Telebista etabarretan zabaltzen ari da, piskanaka moderniza-tzen. Hori behar du beste kirolen mai-lan jartzeko. Baina frontoietara geroz eta jende gutxiago joaten da eta gehia-go inguratzeko formulak aurkitu behar dira. Bestalde, pelotak ere fuertee-giak dira, indar asko behar da jokatzeko, pelota bigunagoekin aurrelariak gehiago sartuko lirakeke jokuan, ikus-kizuna gehituz.

14 dejada

- Asteburuko planik onena?
- Lagunekin juerga on bat egitea.
- Hire koadrilakoei ze afari prestatuko hieke?
- Urdaiazpiko tortila eta txuleta.
- Iturriberriko ura ala Insalus?
- Iturriberrikoa dudarik gabe.
- Gehiago ligatzen al dek ezaguna hai-zenetik?
- Ligatu ez zekiat, harreman gehiago diz-kiat.
- Non zeudek ikusi dituan aldagelarik txarrenak?
- Bergaran.
- Momentu honetan, zer esaten zio-k Xabik Imazi eta Imazek Xabiri?
- Xabik Imazi, ahal duen guztia egiteko, Imazek Xabiri orain arte bezalakoa izaten

jarraitzeko.

- Zer ez diek aguantatzen kuadrila-koei?
- Kulparik ez duen jendeari adarra jotzea.
- Santuak eraman ala soldadu romano jantzi?
- Santua eraman.
- Ze santu?
- Piedadea.
- Prozesioan zenbat paper egin dituk?
- Nazareno, monagilo eta txistulari.
- Festarik onenak?
- Segurakoak.
- Goizeko despertadore hotsa ala txapa hotsa?
- Despertadorearena.
- Mikel Markez ala Su Ta Gar?
- Mikel Markez.
- Kazetariei beldurrik?
- Beldurrik ez baina kontuz ibili behar.



Aurrera Xabier!

Seguran denok jokatu izan dugu pelotan, afizio handia egon da beti. Punta-puntako afizionatuak eta zenbait profesional ere eduki ditugu, eta azken aldian ni iritsi naiz hor gora. Orain atzetik datozen Imaz, Artola eta abarren pizgarri izatea tokatu zait. Giro honek berrindartu egin du zale-tasuna, bestela ez da erraz ulertzen 1.300 biztanleko herri batetik Herriarteke Txapelketa irabazteko hiru

mailatako jendea atera izana.

Orain Xabierri dagokio profesio-naletarako jauzia egitea, ez nolanahiko jauzia gainera. Pelotan jokatzeko era, giroa... dena aldatzen da. Oso ezberdina da Herri arteko finala edo profesional mailako edozein final jokatzeko, jendea ezberdina da, apostua sartzen da eta askoz ere presio gehiago dago. Beti saiatu naiz berari hori azpimarratzen.

Pelotari handia izan liteke, horretarako ezaugarri onak ditu: sasoia, bi esku eder... Falta duena, igotzen diren guztiek bezala, gogortzea da, partidu luze eta gogorrak jokatzeko prestatzea. Lasai utzi behar zaio, hobe ez forzatzea, urte pare bat barru ikusiko dira dituen baliabideak. Haseran goian jarri eta failatu ezker, oso zaila izaten bait da moral aldetik hori gainditzeko. Beraz, lasai ibili, mentalizatu eta gogortzen joatea gomendatzen diot Xabierri.

Martin Alustiza

G.- Asegarce eta Empresas Unidas artean zergaitik aukeratu duzu lehe-na?

X I.- Asegarcek dituen ideiak eta ki-rolerako asmoak interesatzen zaizkigu. Dirua baino gehiago etorkizunari, gora igotzeko posibilitateei begiratu diegu.

G.- Debuta noiz?

X I.- Azaroaren 26 edo 27an izango da. 2. mailako txapelketa abenduaren 4an hasten denez, aurretik debutatu nahi genuen, presio gutxiago izatearren. Ahal bada Alustizarekin debutatu nahi dut, baina hori enpresaren esku dago. Seguran debutatzea ere oso polita izan-go zen, baita "fuerteegia" ere.

G.- Ezberdintasun handiak aurki-tuko al dituzu?

X I.- Bai, dena aldatzen da, kontra-rioak, pelotak, abiadura, apostua, ten-tsoia... partidu guztiak final bat bezala izango dira. Oraingoz kontrarioak eza-gutzen joatea nahikoa da, ikasi eta mailaz igotzen joan.

G.- Bakarka, lau t'erdian edo frontoi osoan?

X I.- Osoan ez naiz asko ibili, baina prestatu eta piska bat jarri ezker kua-litate gehiago dut. Aurten bigarren mailako txapelketan aterako naiz eta hor ikusiko dugu zer moduz nabilen. Haseran prestatzea da helburu eta ez

irabaztea. Ez dut Eugi eta Belokik izan zuten erresponsabilitate eta presioa izan nahi.

G.- Zein da tanto politena?

X I.- Atzelari bezala, pelotakada ederra jo eta 7an bote egitea polita da. Bestela, profesioaletan gutxi ikusten dena eta Artolari ikusi izan diodana, sotamanoz bi paretak efektuarekin, hori artisten gauza da.

G.- Zein da zure gustoko frontoia?

X I.- Segurakoa asko gustatzen zait. Aparte, Tolosakoa (ondo joan zaiguna) eta Anoetakoa ere onak dira.

G.- Segurako frontoi zaharrean asko aritu zara?

X I.- Aritu izan naiz, batez ere koadri-lan "etapatan" jokatzeko. Eguraldi ona-ekin ere, pelota gozo bat hartuta izerdi ederrak bota izan ditut. Lastima da da-goien lekuan egonda jokatzeko moduan ez egotea. Polita izango zen pelotariak jokatzeko edo entrenatzen ari direnean jendea ikusten egotea.

G.- Segura zurekin ala zu Segurare-kin zorretan?

X I.- Ni Segurarekin, dudarik gabe, beti lagundu didate, beti izan ditut ondoan eta jendearen giroa oso ona da.

G.- Alustiza aurrean dela zer moduz jokatzeko da?

X I.- Oso ondo, lehengoan Anoetan bezala jokatu ezker ederki. Berak as-ko laguntzen du.

G.- Egunen batean Alustiza-Imaz txapeldun?

X I.- Oso polita izango litzateke, baina ez dago esaterik. Berak 31-32 urte ditu, ni nola noan eta bera nola dagoen ikusi behar da. Zaila izango da.

Joseba Telleria eta Mikel Albisu

KATTALIN

ERRETEGIA-SAGARDOTEGIA

Sagardoa txotxetik

Antzizar Auzoa, 4 - "Biona" Etxea
(Polikiroldegi ondoan) ☎ 889252 BEASAIN

HEGOA

TABERNA

Goierrri kalea, 12 (atzekaldea)
ORDIZIA

LOINATZ

Taberna
Jatetxea

Bazkari, afari,
ogitarteko, pintxoak

Nagusia, 27 ☎ 88 20 07 BEASAIN



“Garai bateko kontuk gogon...”

Lazkaumendin bada ermitta bat, San Juan Anteportalatinam, ta orko festak izaten die maiatzen, Lazkauko festak pasau ta urrengo jaien. Oain kontatzea noana 1922 edo 1923ko kontue da, ez gaurkoxea!

Aiuntamentuk gue baserrin, Maitzaundiñ eitten zon bazkarie, banketea festatan. Auxe izaten zan ango jan-otordue: aurrena fideo-zopa, zopa sendo-sendoa, gero bar-bantzue, baserrin ildako txerri-lukainkekiñ, ondoren xixa-tortillea ta arkume errea; postrea're urtero berdiñe izaten zan: esnekiñ arroza, gañen galletakin. Mieleneko naiko ardo egarrie asetzeko eta kafea, kopa gorrie edo txurie eta purue. Bazkarin prezioa, sei pezta t'erdi bakoitzeko. Gaur diru orrekiñ arnasik'e ez dau artzeik...!

Ba gero, 1941 garren urten jarri nitzen Lazkauko Udaletxen agua-zill-alondigero. Izate'non netzako aïne lan, bai orratio!: urekiñ'e komerik in bearra izaten giñutzen, Urbaundiko depositue bakarrik gendun ta oso exkax ibiltzen giñen. Ze'sanik ez eskalekiñ: ude exkax baño eskalek ugari beti Lazkaun! Lanen zebillenak jornala bajue zon oso; ni lanen asi nitzen urten 3.000 pezta irabazten nittun, CAF-en ere oixe irabazten zan da jenealen bestetan'e bai.

Lanea juteko gauza ez eta geldittutakon, nola jubilazioik etzeon (gero jarri zon Francok), zaar asko juten zien zakue artu ta eskea. Beasain ta Billafrankan etzittuen eskalek



Joxe Madariaga (Lazkaoko udaltzain-ohia)

ametitzen ta danak Lazkaue etortzen zien. Nik keja asko izaten nittun, aguazill bezela, zorrie ugari ibiltzen omen'tzuen ta...

Zupiriane tabernan eoten zien eskaleok, ude naastutako ardoa eaten

(ude naastu ta ondo kobrau!), ta ala, alkatek deittu omen'tzon Felipe au, tabernarie, ta eskalek etxetik despatxatzeko esan omen'tzion. “Nik dauzkean klienteik obenak oik dittuk, ta nik oik despatxau?; ez oixe!” Felipek erantzun.

Ortik ezer etzeola ikusita jun nitzen Patxiña, Apalatei atzen bordea baitzon eta garo ta orbeletan gaue pasatzea auntzaxe biltzen baitzien eskale guztik. Esan nion ba Patxiñi eskalek despatxau in behar'tziela, erriñ kejak zerelata, eta Patxiñi auxe kontesta zian: “Borda ori nerea da; falta izan'tzat majiñat gauza baño eskalen aitzakin beste batzuk izan die nei gauzak arrapatu dienak...”.

Olakoxe kontu ta komeritan ibiltzen giñen garai aitan eskalekiñ.

Joxepak jasoa



ANZIZAR, S. A.

Autoelektrizitatea
eta mekanika

Volkswagen
taldea

Beasain-Zumarraga, 46 Kma.
☎ 88 17 00 - 88 17 04 BEASAIN

URBITARTE Sagardotegia

Azaroaren 17tik aurrera egunero irekita.



Enkarguak: 888331
ERGOIENA AUZOA
☎ 882719 ATAUN



✓ Eguneroko menua, 750 pzta.
✓ Karta, batzaz beste, 2.000 pzta.
☎ 18 00 19 ATAUN S. Martin

Juanito Mendizabal 4 urtez txisteka-misteka

Juanito Mendizabal idiazabaldarra aski ezaguna da afari, jaialdi eta horrelakoak txistez alaitzeagatik. Oiarzunen herriko trikitilari zaharrei egindako jaialdi batetan egun zuen lehen agerpena, publiko zabal baten aurrean. 4 urte daramatzan arren ez da zehazki gogoratzen nondik datorkion zaletasun hori, baina bere ikasle eta soldadu garaietan koka dezakegu; han entzundako txistek gero lagun artean kontatzen baitzituen Idiazabalgo Xume tabernan.

Hasiera hartan, horrela ikasi zituelako edo, erdaraz errazago ateratzen omen zitzaizkion. Gaur egun ordea, hainbat txiste moldatzen du, euskaraz kontatzeko. "Ez dakit zeinek asmatzen dituen txistek. Sarritan hainbat gertaera bitxi txiste bihurtzen da. Gero bakoitzak bere ikutu berezia emango dio. Nik liburuetatik, zintetatik, besteei entzunda... ugaritzen ditut hauek", dio Juanitok.



Protagonista umorea jartzen duena da nola ez, baina berau inguratzen duen jendeak ere paper garrantzitsua jokatzen du. Idiazabaldarraren esanetan, txistek lotura bat suposatzen du kontatzen duena eta entzuten duenaren artean, eta kontatzaileak jaialdian dagoen publikoaren arabera aukeratzen ditu hauek. Orokorrean jendearen gustokoenak "pikanteak" izan ohi dira Juanitoren arabera. Esanahi berezia dutenak eta gaitzat baserritarra hartzen dutenak ere arrakasta izaten dute.

Dena dela, umorea ezberdina da han eta hemen. Txiste bat Idiazabalen kontatu edo Beasainen kontatu, ondorioa ezberdina izaten omen da Juanitoren esanetan. Afal ondorengo giroa gustatzen zaio gehien txistek kontatzeko, giro berezia, beroa izan ohi delako. Euskal Herrian txiste hitza afal ondoren batekin lotzen da. Hala ere ez dago hemen txiste kontaketatik bizitzerik. 15.000 pzta. inguru kobratzen ditu ohizko jaialdietan.

Juanitok nahiago du berak txistek kontatu eta jendeak barre egitea, aldeantiz baino. Telebista programak ere grabatzen ditu, baina hauek bezainbat barre eragiten diote "Mortadelo eta Filemon" bezalako pertsonaia bereziek.

Jaialdi askotan ibili izan da eta beharrezkoa du agenda bat hauek behar bezala antolatzeko: hilaren 11n Errenterian entzun dezakegu, eta 18an Eskoriatzan. Hortik aparte, agian, Antena 3ko "Genio y figura" saioan agertuko da, bideo bat bidalia du jadanik eta.

 Estitxu Imaz

Fotozaharra

Ezkio-Santa Lutzi bailarako dotriña umeak (1940)



Argazki hau Ezkio-Santa Lutzi bailarako dotriñako umeak Loiolara joan ziren batean aterea dago 1940. urtean. Mirentxu Labarza andereak bidali digu, mesedez bueltatzeko eskatuz. Sinfalta izango duzu bueltan hor eta eskerrik asko.

Ezkerretik eskubira, atzeko iladakoak: Juanita Berasategi, Miren Bereziartua, On Jose M^a Aranberri (apaiza), Karmen Oiarbide, Felizitas Labarza, Mirentxu Labarza, Arantxa Aranburu, Simona Narraspe, Asun Oiarbide, Marilo Azpiazu, Modesta O., Antonia Oiarbide, Maritxu Narraspe, Juliana Narraspe, Karmentxu Labarza, Maritxu Bergara, Mariatxo Etxeberria eta Karmentxu Azpiazu.

Bigarren iladan mutikoak: Josetxo Azpiazu, Julian Elizegi, Isidro Goia, Pedro Goia, Agustin Iturbe, Markos Oiarbide, Joxe Mari Goia, Julian Akizu, Iñixio Aranburu, Bernardo Ezpeleta eta Jabier Zumarraga.



ARAMAKO UDALA

Arama Gipuzkoako herririk txikienetako bat da (1,3 kilometro karratu ditu). Ibares errota Erret Bidetik Aramara sartzeko zegoen zubi ondoan dago kokatua. Aurreko mendekoa da eta, etenalditxo baten ondoren, oraindik martxan dago. San Martin parrokia da herriari nortasuna ematen diona. Bertan dagoen Amabirjinaren

taila da aintzinatik jasotako argibide bakarra. 93etik estalitako pelotaleku zoragarri bat du. Ezagutzekoak dira Apaiz etxea, Iriarte eta Iturrioz baserriak.

Azaroaren 11n dira festak. San Martin bezperan gaztain jatea izango dugu: gaztainak eta ardoa Udalaren kontu. Herritar nahiz kanpotarrak gonbidaturik gelditzen zarete.



TOKI-ALAI JATETXEA

bataioak, jaunartzeak

bazkariak, afariak

eguneroko menuak

Tfnoa.: 88 89 53

ARAMA



TRANSIT BERRRIA

- Elebaluna elektrikoak
- Zerrail zentralizatua
- Takografoa
- Kargarako argia
- Lapurreten aurkako sistema
- Aire egokitua
- Segurtasun neurri aurreratuenak



Mujika

☎ 88 74 00

**N-1 errepidea
BEASAIN**